



## Harrerarako piezak

Migratu duten pertsonen harrera egokia prestatzeko lanean / 5

**Sakanako Estrategia Plana garila eta azaroa bitartean berrituko da** / 2-3

**Altsasuko Udalak alokairuko etxebizitzaren eskaera zein den jakin nahi du** / 9

**Imanol Arregik beste bi urtez jarraituko du Osasuna Magna Xota zuzentzen** / 19

**Final Laukoan txapeldunordea izan den CBASK Jatormanek zaleen babesa eskertu du** / 20

**Mikel Maiza Razkin artista etxarriarrak 'Ilezuri' album ilustratua aurkeztu du** / 22-23

# Estrategia Plana berritzeko garaia

Garila eta azarora artean eginen da, foru administrazioaren Nafarroako Espezializazio Adimentsuko S3 Estrategiari segituz eta hari egokituz. Hiru erronka nagusi identifikatu dira: eraldaketa digitala, klima aldaketa eta lehengaiak eta demografia

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakanako Sozioekonomia Behatokia (SSB) 16 kide Dinabide eraldaketa digitalerako gunean elkartu ziren aurreko ostegunean. Eta bileran, telematikoki, beste zortzi kidek parte hartu zuten. Aurtengo aurreikusitako erronka nagusiak izan zituzten hizketagai. David Oroz Alonso, Sakanako Mankomunitateko presidentea, zabaldu zuen bilera. Orozek gogorarazi zuen aurreko krisialdian ibarrak erabaki zuela geldi ez egotea eta ekimen haren ondorioz Sakanak "egoera berria, itxaropentsuagoa" bizi duela gaineratu zuen.

Gaur egungo krisialdian aurrekoan baino egoera hobea dugula uste du Orozek, "gauza asko egin ditugulako. Bakoitza bere aldetik joatetik elkarlanera pasa ginen eta zortzi urteko bidea egin dugu, eta emaitzak izan ditugu, esaterako, Dinabide. Orduko hausnarketek hainbat proiektu eta elkarlan ekarri dituzte". Orozek Nafarroako Gobernuko Ekonomia Garapenerako Departamentuaren inplikazioa nabarmendu zuen. Presidentek gogorarazi zuenez, Sakanako Estrategia Plana berritzeko garaia iritsi da. Guztion artean elkarlan eta parte hartzearekin gai izanen gara proiektuei eta erronkei aurre egiteko".

**Estrategia plana**

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Iker Manterola Matxainek

jakinarazi zuenez 2021-2027 Sakanako Estrategia Plana (SEP) egiteko lanak kanpo aholkularitza enpresa bati emateko deialdia egin dute. Haren ardura izanen da, besteak beste, dinamizazioa, parte hartzea sustatzea eta akordioak bideratzea. Garila eta azarora artean egin nahi dute plana.

Manterolak gaztigatu zuenez, epe horretan "eguneratzeko helburuz, diagnostia aztertu eginen da. Hori eginda, parte hartze prozesu baten bidez, lan ildoak eta estrategikoak diren proiektuak definituko ditugu". Horretaz aparte, Manterolak nabarmendu zuenez, "beste elementu garrantzitsu bat izanen da gobernantzaren berrazterketa; hau guztia posible egiteko nola koordinatzen garen, nola kolaboratzen dugun". Lan munduan zentratutako plana izanen denez, elkarlana helburu, enpresek eta eragile antolatuen parte hartzea bilatuko dute. Sakandarrek proposamenak egiteko aukera ere zabalik izanen da.

SEP Nafarroako Espezializazio Adimentsuko S3 Estrategiari segituz eginen da. "Horrek hainbat aldaketa sortzen ditu. Sektorereko arloekin batera lehiakortasun

**"BAKOITZA BERE ALDETIK JOATETIK ELKARLANERA PASA GINEN ETA EMAITZAK IZAN DITUGU"**

sun faktoreak daude. S3an Nafarroakoak definituta daude, baina eskualde mailara etorrira lehiakortasun faktore bezala etxebizitza eta zerbitzuak (telekomunikazioa) lehiakortasun faktore bezala identifikatu ditugu, talentua erakartzeko eta bertan mantendu ahal izateko oinarritzakoak direla uste dugu". SSBk 2019an identifikatu zituen faktore horiek.

**Planeko erronkak**

SGAk planari begira hiru erronka handi identifikatu ditu. Lehen eraldaketa digitala da. Aintzane Iriberrri Berrostegeta teknikariak azaldu zuenez, "aukerak badiren arren arriskuak ere ikusten dira, eta lan esparruan sortutako aldaketei jarraipena egiten joan beharko gara". Iriberrri "oso garrantzitsu" jo zuen "herriar guztien gaitasun digitalen prestakuntza, arrakala digitala ekiditeko".

Bigarren erronka klima aldaketa eta lehengaiak dira. "Enpresak lehengaien horniketara arazoak izaten ari dira eta, aurrera begira, ziurgabetasun handia dago". Energiari dagokionez, Iriberrri azaldu zuenez, "klima aldaketari erantzunen dion benetako energia trantsizioan autokontsumoak oinarri izan behar duen arren, bestelako ereduak ikusten dira".

Eta azken erronka demografia da. Gizartea zahartzeak, besteak beste, mugikortasunean eta zain-



David Oroz Alonso Mank-eko lehendakaria azalpenak ematen. SGA



Galde erantzunendako tartea ere izan zen bileran. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA



Turismo teknikari Paki Urbitarte Cabrera aurtengo egitasmoen berri ematen. SGA

tzan eragina duela gaztigatu zuten SGAtik. "Bakardadea handitzen ari den errealitatea da eta komunitatea indartu beharra aipatzen da". Bestetik, "enpresetan eta lanpostuetan gero eta espezializazio handiagoak daude eta gero eta gazte gutxiago ditugun heinean, langile kualifikatuen falta gero eta nabariagoa da enpresetan". Horregatik, "demografia erronkari eta enpresen lehiakortasunari erantzuteko, etxebizitzaren inguruko politika publiko berriak sustatzea nahitaezkoa da".

Horretaz aparte, SSBren bileran aipatu zen kontratazioan gora egiten ari den arren, lan baldintzak eta prekarizazio dinamikak sortzen dituzte. Lan esku kualifikatuaren premia ere mahai gaineratu zen, "talentua erakartzeko giroa sortu behar da eta bertan talentua garatzeko prestakuntza sustatu behar da". Ekin-tzaile sakandarraren artean autoenplegua lortzera jo dutenak dira nagusi eta zerbitzuetako autoenpleguren errealitatera egokitutako eraldaketa digitala eta prestakuntza beharrezkoa ikusten duenik ere bada.

### Etxebizitza

Etxebizitza eta telekomunikazio arloan eragiteko Mank-ren baitan lantalde bana sortu zen, SGaren laguntza teknikoaren bidez. Etxebizitza lantaldeko koordinatzailea da Oihana Olaberria Jaka Arakilgo alkatea. Berak azaldu zuenez, 2020an lantaldea sortu zen eta herri gehienetako ordezkariak parte hartzen dute.

Etxebizitzaren inguruko oinarriko diagnostia egin zuten eta ikusi zuten herri guztietan antzeko arazoak daudela: etxe hutsen kopuru izugarria, batez ere herri erdiguneetan; alokairurako etxebizitzaren falta handia eta gazteek, ez hain gazteek eta kanpotik etorritakoek etxebizitza eskuratzeko zailtasuna. Olaberriak jakinarazi zuenez, "errealitatea hobeki ezagutu beharra dugu, baita etxebizitzaren arazoari erantzuteko Sakanara egokitu daitezkeen eredu berriak ere". Koordinatzaileak "oso garrantzitsu" jo zuten etxebizitzaren zaharberritzea sustatzea, eraikin berriak egin baino.

Gauregun "etxebizitza beharren inguruan dauden politika publikoak eta esperientziak ezagutu eta partekatzen ari dira. Bertan proiektua gertutik segitzen ari

dira, sinergiak sortu baitaitezke. Gainera, "modu koordinatuan horiek aurrera ateratzeko baliabideak bilatzen ari gara". Olaberriak azaldu zuenez, Nasuvinsa enpresa publikoarekin harreman zuzena dute eta lankidetzak esparruak zabaltzen ari dira eta, horren ondorioz, "aurki energia zaharberritzea sustatzeko bulego bat zabalduko da". Mank-en Lakuntzako egoitzan kokatuko da eta han dagoen etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoarekin koordinatuta egonen da.

Gainera, herrietan lehentasunezko zaharberritze guneak sustatuko dituzte, "dirulaguntzak dezente hobetuko dituelako. Gaur egun zaharberritze batek %20ko dirulaguntza jasotzen badu, eremu horietan daudenak %45 jaso dezakete. Hori lotzen ari gara".

### Telekomunikazioa

Herri txikietan dagoen Interneten premiari erantzuteko sortutako lan taldearen berri Odei Zabalak eman zuen, Irañetako zinegotziak. Joan den urtean lantaldea sortu zen eta Guifinet fundazioarekin elkarlanean hasi ziren. Helburua Sakanako banda zabaleko azpiegiturak zehaztea. Lehen fasean Aizkorbe eta Etxarri Aranatz artean zuntz optikoa zabaltzea erabaki zen eta bigarrenean Etxarri Aranatztik Lizarragara. "Gaur egun lehen fasea eraikitzen ari gara, gure etxeetan Internet on bat izateko". Lehen faseko lanak despeditu ondoren, hurrengoaz gitea aztertuko dute.

### Europako funtsak

SGAk zahartze aktiboa lantzeko Bertan proiektua lantzen ari da. 2020an diagnostia egin zuten, aurten etxebizitza eta mugikortasunari buruzko proiektu pilotuak diseinatuko dituzte. Gainera, mugaz gaindiko zahartze aktiboaren foroa martxan jarriko dute, jardunbide egokiak eta ezagutza partekatuko.

Bestetik, Europako Batasunak Next Generation funtsen bidez estatu kide guztiei krisi ondorengo suspertze jasagarri, uniforme, barneratzaile eta bidezkoa bermatu nahi die. SGako teknikariak funts horietako baliabideak Sakanako enpresetara eta erakundeetara iristeko ahalegin berezia egingen dute. Bestetik, Europako ohiko funtsen 2021-2027 deialdian izan daitezkeen aukerak ere aztertuko dituzte.

## Erronkak



### GOVERNANTZA

Sakana Estrategia Plana Utzuga-ne, Sakanako Garapen Gunea eta SSB idazteko lanen koordinazioaz arduratuko dira, nahiz eta kanpo aholkularitza baten bidez egingen den. Bestetik, Mank-en eta udalen esku daude zuntz optikoko sarea zabaltzeko lanak. Proiektu estrategikoetako bat da.

Komunikazio arloan Sakana marka ezagutzen eta zabaltzen segituko dute, eta Sakana Sariak segida izanen du. Horri bideratuta, sare sozialetako komunikazio estrategiaren ezarpenari segida emanen diote. Komunikazioa hobetzeko harreman sareak zabaltzen lan egingen dute, hainbat arlotako eragile saretzeko, elkarlan aukerak eta finantziario bide berriak identifikatu eta horiei buruzko informazioa ibarreko eragileei emateko.



### INDUSTRIA

Bi proiektu estrategikoren garapenean lan egingen da. Alde batek, Dinabiden coworker berriak erakartzea, enpresei aholkularitza zerbitzua eskaintzea, metalezko fabrikazio gehigarriko ekipamendua erosteko akordioa egin Nafarroako Gobernuarekin. Proiektu estrategikoetako bat da hori. Dinabide bera erakundetzeko pausoak ere emanen dira. Bestetik, Trombe proiektua bukatuko dute.

Prestakuntzari dagokionez, Lanbide Heziketa institutuan fabrikazio hibridoak (3D) eta errealitate birtualaren inguruko lanak egingen dira. Enpresen arloan ibarreko enpresen diagnostia egingen dute, haietara joanez eta bertan galdetegiak betetz. Bestetik, enpresen berdintasun azterketa egingen da.



### TURISMOA

Lau ardatz ditu aurten. Sektorearen lehiakortasuna sustatzeko Bidelagun turismo elkarteari laguntza emanen dio SGak. Eta, bestetik, 2020an hasitako sektorearen diagnostia aurten despeditu eta aurkeztuko dute. Balioztatze ardatzean Donejakue ibilbidearen lanketa zehaztuko dute aurten eta ibarreko ibilbide sarearen jarraipena eta mantentze lanen koordinazioa egingen da. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuarekin akordioa lortu eta zikloturistendako ibilbidearen proiektua idatziko da eta lanen koordinazioa izanen da. Eta Sakanako Kultur Mahaian ibarreko hainbat kultur eragile bilduko dituzte, jarduerak koordinatu eta turismo estrategia eta tokiko kultur aisia egitasmoak eskutik joateko.

Turismo produktuen ardatzean Donejakue ibilbidea eta mendi lasterketetan ibiltzen direnendako trail estazioa daude. Horiek zehaztu eta haien inguruko zerbitzuak eragileekin batera definituko dituzte. Azkenik, ibarreko turismo baliabide eta erakargarritasunen promozioa da. Horretarako, 2020an Etxarriko kanpinean informazio puntu alternatiboa jarri zuten eta esperientzia hori zabaltzeko asmoa dute. Bestetik, sare sozialetan zabaltzeko ikus-entzunezkoak sortuko dituzte.



### KOMERTZIOA

Komertzio planaren barruan SakanAPP aplikazioaren jarraipena eta hobekuntza lanak egingen dira. Haren zabalkundearekin batera, prestakuntza ere emanen da. Aldi berean, merkataritza mahaian tokiko dendariendako interesgarriak diren gaiak jorratuko dira, bereziki sustapen planak.



### ENERGIA

Sakanako Energia Planaren barruan, udalen energia kontsumoen jarraipenerako Menhir plataforman aldaketak egingen dituzte eta zerbitzuarekin segituko dute. Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna ezartzeko udal eta kontzejuei laguntza emanen diete. Gainera, Sakanako mugikortasun eredu berri bat zehazteko lehen pausoak emanen dira aurten. Azkenik, energia berriztagarrien sentsibilizazio eta sustapenaren arloan, SGak Lizarragako mikrosarearen zabalkunde eta komunikazioarekin segituko du, baita energia berriztagarrien proiektu publikoei laguntza ematen ere.



### ELIKADURA

Hiru arlotan zentratuko dira aurten. Ekoizpenari dagokionez, ekoizleen foroak sortuko da, ekoizleen beharrei erantzute. Horrekin batera, Sakanako Agroekologia Eskolak ekoizpen berriak sustatuko ditu, horretarako prestakuntza eskainiz. Gainera, nekazaritza bioiztasuna identifikatu ondoren, haren ekoizpena sustatzeko sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak egingen dituzte.

Bestetik, eraldaketa eta merkaturatzea dago, Etxarriko Sakanan hiltzearen eraikitzen ari diren eraldaketa gunean oinarrituta. Etxarri Aranazko Udalak sustatu ditu lanak eta haren kudeaketan hainbat eragilek parte hartuko dute: ekoizleek, harakinek edo tokiko erakundeek. Azken lan arloa kontsumoari lotutakoa da. Eraldaketa gunea aurtengo inbertsio estrategikoetako bat da (200.000 euro). Bertako produktuen kontsumoa sustatzeko Dastatu Sakana marka sortu zen eta horri bultzada emanen diote.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

## Txertoak hizketagai

Kafea hartzera bildu den lagun talde bat txertoei buruz ari da hizketan. Haietako gehienek adinagatik txertoaren lehenengo dosia hartua dute, bakarren batek oraindik hartu gabe dauka, gazteagoa delako eta kasu honetan txertoaren kontrakoa delako (ez dakigu zer eginen duen txanda iristen zaionean). Beste batek esana du oraindik ez duela hartuko, badaezpada, har dezatela besteek lehenago. Goazen ba ikustera!

Lehenengoak jarrera ukatzailea defendatzen du, jakinduria handia duela argudiatuz eta gainerakoak inuzente samarrak iruditzen zaizkio eta engainatuak daudela esaten die. Esan gabe doa, lagun honek jakinduria Interneten-edo aurkitutako artikulua pare bat irakurri ondoren eskuratu duela, (iturriak aztertu ote dituen ez dago garbi, baina ez du ematen, beraz, iturrien fidagarritasunari buruz ezer gutxi). Artikulu horiek diotena diskurtso koherentean buruz eta hitz teknikoekin esateko gai da eta halaxe bota die kafekideei. Gainerakoak aho zabalik daude, aho txuloari begira, dedio ze ongi hitz egiten duen! esanez, bere baitan. Ba nengoen ba ni! pentsatu du beste batek. Eta guztiek zenbat dakien esan lukete ezagutuko ez balute, baina elkarren artean, honezkeron, nahiko ezagunak direnez, adarra jotzen diote: hi esanza/k berriro hitzez hitz esandako guztia! Lagun honek, nonbait, itsu-itsuan sinistu du irakurritakoa, nahiz eta, ustez, bere burua iritzi kritikoa duen pertsonatzat izan, eta dakien apurrarekin txertoak txarrak direla eta genetika aldatzen dutela garbi izan.

Bigarrenengoak, mundu guztia baino azkarragoa denak, (horren jokamoldea ere ezaguna da inguruan), txertoa jartzeko asmoa dauka, baina, badaezpada, beste atzetik paratuko duela adierazi du, eta besteei zer gertatu zaien ikusi ondoren, (apika, txertoen emaitzak zeintzuk diren jakiteko gai da edo ziur dago tartean ez duela gaitza hartuko eta gaizki pasatuko, batek daki!). Horren pentsamendua honelakoa da: uuuuuuhh, auskalo zer sartuko diguten, lehenengo beste batzuekin proba dezatela, eta gero behar baldin bada txertatuko naiz ni. Kafekideek aprobetxategitza eta berekoitzat daukate pertsona hori, besteek egindako lanaren edo jasandako albo ondorioen emaitzak aprobetxatu nahi dituelako, baina arriskurik hartu gabe.

Bi jokamoldeak zilegiak dira, baina, halaxe kontuk!!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Argi ilunak

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

2020ko abuztuaren lehenengo ostiralera kolaborazioa idatzi nuenean, ez nuen uste 2021eko uda bezperan pandemia giroan idatzi beharko nukeenik, baina horrela gertatu da. Egia da argi izpi batzuk ikusten direla. Baikorrenentzat, egunsenti eder baten ezaugarri izango dira, fidagaitzentzat, eguraldiaren ezegonkortasunaren iragarpena. Norberak, izatearen arabera, ulertuko du errealitatea.

Hasiera hasieratik jubilatuekin grinatu zen pandemia eta emaitza penagarriak jasan behar izan genituen, sufrimendua, bakardadea, heriotza... Argisentirik gabeko gaua.

Gaur egun, txertoari esker eta zintzo jokatzuz, badirudi arriskua saihesten ari garela; zenbakiak hori diote. Argiari eta biziari zirrikitu bat irekitzeko aukera utzi digute. Beraz, aurrera begiratu eta pandemiak utzi dizkigun gabeziak salatu eta zuzentzeari ekin beharko diogu.

Osasungintzan, zahar etxeetan, zerbitzu publikoetan, politika pribatizatzaileak izan duten eragina nabarmena izan da. Zahar etxe publikoen aldarrikapena aspalditik dator: berri kezkarriak genituen: langile kopuru motza, arreta eskasa, soldata murrizak, ratio zabalak... Pandemiak azaleratu ditu gabezi hauek. Politika pribatizatzaileak ez du bermatzen gizartearen ongizatea, gure ongizatea, duintasunez bizitzeko eta hiltzeko eskubidea.

Pozgarria, egoera honetan, jubilatuek zailtasun guztien gaineratik elkartasuna eta borrokari eusteko gai izan garela. Nola edo hala moldatu gara elkartzeko, errealitatea aztertzeko, kalera ateratzeko, bizirik gaude eta gerra ematen jarraituko dugu. Maiatzaren 29an egin ziren manifestazioak guzti honen adibide garbiak. Behartuak gaude.

Gure eskubideak bermatu behar lituzketenak ez dira geldirik egon. Toledoko hitzarmenak piztu zizkigun argi izpiak itzaltzen ari zaizkigu. Escriba jaunak barneratu ditu Europak exijitzen dizkion murrizketak eta gure eskariak kolokan daude. Udazken beroa iragartzen dugu eta gure borrokak ez du oporrik hartuko. Jubilatuen bizi duina arriskuan dago.



## OBJEKTIBOTIK



## Entzierroa Altsasuko kaleetan

Altsasuko kaleetan paseoa zebiltzanak bat-batean sanferminetan egongo balira bezala sentitu ziren, kaleak behiez beteta

ikusi zituzten eta. Norbaitek entzierroen falta sumatu eta behiak Altsasuko kaleetatik paseatzera eraman zituen. Agian,

merkatuan zerbait erosteko aprobetxatuko zuten ere.

Lasai ibili, unai batek ongi bideratuta zihoazen eta.

**guaixe**  
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaleen Topaguneak lankidetzaz hitzarmena berri dute 'Euskarak 365 egun' lelopean Foru Komunitatean euskararen erabilera soziala sustatu nahi dute

## SAKANA

Ana Ollo Hualde Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak eta Oskar Zapata Euskaltzaleen Topagunea elkarteko zuzendariak Nafarroan 2021 Euskaraldia Euskarak 365 egun izeneko kolaborazio hitzarmena berri zuten apirillean. Bi erakundeek eskutik sortutako ekimenaren helburua da euskararen erabilera sustatzea eta bere erabileraren aldeko jarrerak aktibatzea, bereziki herritarren hizkuntza ohiturak kontuan hartuta. Hitzarmena 130.000 euroekin hornituta dago, zeinak bideratuko diren programa koordinatu eta barreiatzera, sustapen eta



Herenegun 'Bizipoza' emanaldiaren ondoren iritzi trukaketa izan zen.

sentsibilizazio jardueretara, jendaurreko ekintzetara, hala nola entitateetan eta udalerrietan bere sustapena egitera.

Aurreikusitako jardueren artean dago Iñaki Alforja Sagonek zuzendutako eta apirilaren 15ean Iruñean mustutako *Biziprest*. *Gehiago gara* dokumentala uda bitartean Nafarroan barna ematea. Ikus-entzunezkoan euskarak pizten dituen sentimenduak erakusten dira Nafarroako aniztasuna islatzen duten lau pertsonen bizipenen bitartez. Dokumentalaren emanaldia hartu zuen herenegun Altsasuko Gure Etxea eraikinak. 20 euskaltzalek ikusi zuten hura eta ondoren iritziak trukatu zituzten.

Bestalde, erdaldunei zuzendutako euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio tailerrak egingen dira maiatza eta garagarriean.

## Gehiago

Udazkenearekin etorriko da Euskaraldiaren 2021-2022 edizioari begirako aktibazioa. Izan ere, Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak jardunaldiak lastailaren 14an

eginen dira. Nafarroan gero eta herritar gehiago euskararen biziberritze prozesuarekiko entzikotago edo solidarioago izateko diskurtsoaz, praktikaz eta bestelako baliabidez gogoetaztea dute helburu jardunaldiok.

Azaroak 12aren inguruan egingen da Iruñean ekitaldi zentrala. Sinatzaileek aurreratu dutenez, ekimen ludiko bat izanen da, Nafarroan euskararen erabilera sustatzen aritzeko gogoz diren guztiak elkartzeko eta haren ondotik etorriko da, azaroa akabera eta abendua bitartean, aktibaziorako dinamika sozial bat, Nafarroan herriz-herriz egingen dena.

## Hirugarren Euskaraldia

Belarriprest eta ahobizi rolak hartuta, euskararen erabilera handitzeko makina bat euskal herritarrek ariketa sozialetan parte hartu dute. Azken edizioaren berritasuna izan zen une oro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten eremuen sorrera eta identifikazioa, sektore, tamaina eta ezaugarri mota guztietako makina bat entitateen atxiki ziren.

# Udarako turismo informatzailea behar da

Aralarko santutegi ondoan egonen den informazio gunearen ardura izanen du gariletik irailera. Hilaren 16ra arte eman daiteke izena oposizio lehiaketan parte hartzeko

## SAKANA

Bisitarietako harrera egin eta informazioa emanen dien langile bat izanen da santutegi ondoan. Plazaola turismo partzuergoak eta Sakanako Mankomunitateak urtero txandaka hartzen dute informazio gunearen ardura eta partzuergoak Larraungo Udalen bidez pertsona bat oposizio lehiaketa deialdia egin du.

Interesa duten pertsonak langabeak izan beharko dute eta Nafar Lansaren lan eskatzaile gisa izena emana izan beharko dute. Euskara (EGA edo baliokidea) eta ingelesa (B1 edo baliokidea) jakin beharko dituzte, gida baimena eta autoa izan beharko



2020an ez zen jarri, aurten bai.

dituzte. Eskabideak eta deialdiari dagozkion agiriak hilaren 16ko 15:00ak arte aurkeztu daitezke Larraungo udaletxean.

Aukeratutako langileak inguruko erabilera publikoari (jarduerak, ingurune naturala, zerbitzuak, etab.), inguruneko jardunbide egokiei eta inguruneaz gozatzeko gomendioei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkuak eman beharko ditu, inork natura, kultura, paisaia eta ingurumen balioak arriskuan jar ez ditzan. Horrekin batera, mendiaren eta bere inguruneko turismo eskaintzaren berri emanen du eta bisitarien inguruko datu bilketa egin beharko du.

# Plazaolako bide berdearen ibilbide guztia ikusgai izanen da

Sarasa eta Andoain arteko 68 km-ko ibilbidearen 360 graduko irudiak Interneten ikusgai izanen dira

## ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsak, Basquetour, Plazaola turismo partzuergoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin dute eta haien ekimenez Plazaolako bide berdean barna birtualki bidaiatzeko aukera izanen da. Horretara, 39.500 euro bideratu dituzte. Baina proiektuaren abiapuntua Googleren eta Ferrocarriles Españoles fundazioaren arteko akordioan dago, haren bidez bide berdeak digitalizatu eta natur gune horien sustapena egiteko. Plazaola bide berdea aukeratu dute digitalizaziorako proiektu pilotu gisa, kontsolidatutako bidea delako, zerbitzuak dituelako, luzeragatik eta paisaiaren edertasunagatik.

Horregatik, Kaptura ekoiztetzeko Ander Zugazak atzo 68 km-ak mendi bizikleta elektrokoarekin egin zituen. Motxilan



Plazaolak 9,5 km ditu Sakanan.

360 gradutan irudiak hartzen zituen kamera zeraman eta horrela ibilbide guztia grabatu zuen. Irudi horiek Google Maps eta Google Street Viewra igoko ditu mundu guztiaren eskura uzteko eta, bide batez, bide berdearen sustapenean laguntzeko.

# Sakanan toki politak? Aukeran ditugu

Sakanako Mintzakidek ibarreko tokirik politena zein den jakiteko lehiaketa Maite Miguelek irabazi du. Mintzakideek Aralarko santutegia arte aditu baten bitartez ezagutzeko aukera izanen dute igandean

## SAKANA

Ibarreko gogoko tokiaren berri ematea eta, horretarako, argazkia eta azalpena zuen audioa edo tokiaren bideoa eta azalpena bidali behar zuten parte hartzaileek. Sakanako Mintzakidaren gonbidapena bederatzi sakanadarrek hartu zuten eta haien iritziz Sakanako tokirik politena honakoak dira: Urdiaingo haurrendako parkea, Urdiaingo Laieneko haitzean dagoen Jentilen Sukaldea, Altsasuko Mendisurbe dermioa, Ziordiko udaletxe pareko plazan dagoen lixuarria, Urdiaingo plaza, Altsasu Lakelabaitxo, Iturmendi eta Urdiain arteko kamio zaharra, Altsasuko "osasan iturria" eta Egiarretako Itxasperi ermita. Sakanako Mintzakidek zozketa bidez erabaki du ibarreko toki politena Maite Miguelek proposatutako Altsasuko Mendisurbe dermioa dela.

## Mintzakide

Euskara praktikatzeko helburu duen programa bat da Mintzakide. Euskara ikasten ari direnak, euskara jakin baina erabiltzen ez dutenak hizkuntza dakien pertsona batekin elkartzen ditu. Talde txikiak izaten dira, lauzpabost lagunekoak asko jota. Eta gustuko jarduerak



Lehiaketako partaide batek Urdiaingo Jentilen Sukaldea azaldu zuen. MINTZAKIDE

bat eginez (kafea hartu, paseoa ibili...) euskaraz hitz egiteko, praktikatzeko, konfiantzazko gunea sortzen da. Astean behin ordu bat izaten da. Gehiagotan elkartzen denik ere bada.

Gauregun Irurtzunen, Arbizun, Altsasun eta Ziordian daude mintzakide taldeak. Euskaraz hitz egiteko taldeak edozein herritan sor daitezkeela gaitzigitu dute hura bultzatzen duten Sakanako Mankomunitateak eta AEK-k. Euskaraz komunikatzeko gutxienezko gaitasuna eskatzen dute. Interesa duenak 600 482 024

edo Mank-en Euskara Zerbitzuko 948 464 840 telefono zenbakietara hots egin dezake edo [sakana\\_mintza@eak.eus](mailto:sakana_mintza@eak.eus) e-posta helbidera idatzi. Sakanako Mintzakideak Facebook-eko profileen haien jardueren berri jaso daiteke. Izen ematea musu truk da.

Eta jendeak euskara praktikatzeko helburuz, Sakanako Mintzakidek Aralarko santutegira bisita antolatatu du igande eguerdirako. Arte aditu baten laguntzaz eraikinari buruzko azalpenak jasoko dituzte izena eman duten mintzakideek.

## EHEk euskara "erdigunean" jartzea eskatuko du

Altsasuko Udalak euskara ordenantza "betetzen ez duela" salatuko dute gaur, 19:00etan, udaletxe parean

## ALTSASU

Euskara ordenantza betetzen ez dela eta, *Altsasuko euskaldunok udalari bost!* kanpainaren barruan Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) kontzentrazioa deitu du gaurko. Eragile

euskaltzaleko kideen iritziz, Altsasuko Udalak "Ez du euskararen ordenantza betetzen". Adierazi dutenez, ordenantza jasotakoaren arabera udalak bidalitako idatzizko lehen komunikazioak elebitan izan behar

du. EHEtik gogorarazi dute ordenantza jasotakoaren arabera liburutegian 3 eta 16 urte artekoendako euskarazko eskaintzak erdia izan behar duela. "Gaur egun ez da %30era iristen". Horrekin batera eragile euskaltzaleko kideek nabarmendu dute [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) udal webgunean eduki guztiak ele bitan egon beharko luketela, "baina ez da horrela". EHEko kideek "Euskara erdigunean" jartzea eskatzeko bilkura egingen dute gaur, 19:30ean, udaletxearen aurrean.



Txertoa jartzen.

## Koronabirusaren kontrako 1.405 txerto jarri dituzte

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko herritarrek jaso dute COVID-19 gaitzaren kontrako txertoa

## SAKANA

Nafarroako Osasun Zerbitzuak immunizazio estrategiaren arabera, biztanleriaren txertaketak aurrera jarraitzen du eta aste honetan 43.790 dosi emanen ditu COVID-19 gaixotasunaren kontrako txertaketa kanpainaren barruan. Horietako 1.405 txerto altsasuarrek, olatziarrek eta ziordiarrek jaso dituzte. Herenegun 45 eta 49 urte arteko mendealdeko burundarrek lehen txertoa jaso zuten eta atzo, berriz, 50 eta 54 urte arteko 749 izan ziren txertatuak izan zirenak Burunda frontoian.

Bestalde, heldu den astelehenean Irurtzungo kiroldegian 50 eta 59 urte arteko 1.100 pertsonen jasoko dute COVID-19aren kontrako bigarren txertoa. Asteartean, berriz, Etxarri Aranazko frontoian Lakuntza eta Urdiain bitarteko adin bereko 697 sakanadarrek bigarren txertoa hartuko dute. Bi osasun eskualde horietan heldu den ostiralean jasoko dute lehen dosia 40 eta 49 urtekoek.

Azkenik, garagartzaroren hasieratik herenegun arte Sakanan 40 positibo zenbatu dituzte Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek: Uharte Arakilen 17, Altsasun 10, Etxarri Aranatz 6, Lakuntzan 5, eta bana Bakaikun eta Olatzagutian.

## Laguntzak mediku kontsultategiak eraberritzeko

Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Osasunbideak, herrietako kontsultategiak eta kontsultategi lagungarriak eraikitzeko, eraberritzeko edo handitzeko 950.000 euro zituen aurtan. Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea Gregorio Achutegui Basagoitik ebazpen bidez jakinarazi duenez, dirulaguntza jaso dutenen artean Sakanako bi toki erakunde daude.

Alde batetik, Ihabarko Kontzejuak 15.582,77 euro jasoko ditu. Dirulaguntza horrekin kontzeju etxean bertan dagoen kontsulten gunea handituko eta komun irisgarritasuna hobetuko du Ihabarko Kontzejuak. Bestetik, Iturmendiko Udalak 33.527,13 euro jasoko ditu. Bere diru ekarpena eginda, Iturmendiko Udalaren asmoa da Estafeta kalean, Bakaikurako bidean, dagoen kontsultategia hartzen duen eraikinaren leihoak aldatzea batetik, fatxadak isolatu bestetik eta, azkenik, teilatua berrituko du.

## Ikastetxeetan hobekuntzak egiteko bi laguntza Sakanara

Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko lanak egiteko udalen artean bi milioi euro banatu ditu. Irurtzungo Udalak 45.288,92 euroko dirulaguntza jasoko du Atakondoa eskola publikoko berogailua sektoreka banatzeko. Auditoria egin ondoren, ikastetxean energia eragin-kortasuna hobetu eta gastua murrizteko lanak egin dira: luminariak aldatu, argindar instalazioa eta koadroak berritu, korrante hargune berria jarri eta frontoiko teilatua plaka fotovoltaikoak jarri. Horien segida izanen dira bero isolamendua hobetzeko egingen diren lanak.

Bestetik, 0 eta 3 urte arteko haurrak hartzen dituzten ikastetxeak hobetzeko eta birmoldatzeko dirulaguntza deialdia egin zuen. 250.000 euro banatu ditu eta haieratik 13.759,43 jaso dituzte Arbizuko Udalak, Kattuka haur eskolako. Horrekin haur eskolaren kanpoko patioaren perimetro itxitura berrituko da.

ZURE IDENTIFIKAZIO DIGITALA  
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN  
ERABILTZEKO

ONLINE IZAPIDEAK  
ITXARONALDIRIK  
ETA MUGITU  
BEHARRIK GABE

SISTEMA SEGURUA  
ETA BERMEDUNA

ERRAZA ETA DOAKOA

MUGIKOR ETA  
TABLETEKIN  
BATERAGARRIA

GAKO BAKARRAREKIN  
MAKINA BAT ZERBITZUTAN  
IDENTIFIKATZEKO AUKERA  
EMATEN DIZU:

- ERRENTA ETA  
BESTELAKO ZERGAK
- LAGUNTZAK ETA  
DIRULAGUNTZAK
- ZIURTAGIRIAK ETA  
ERREGISTROAK
- ENPLEGU PUBLIKOA
- UDAL IZAPIDEAK: TAO,  
ERROLDA...
- GIZARTE SEGURANTZA:  
LAN BIZITZA...
- TRAFIKOA: PUNTUAK,  
ISUNAK...
- HEZKUNTZA: BEKAK,  
TITULUAK...
- ETA ASKOZ GEHIAGO...

# Eskuratu al duzu cl@ve?

Erregistratu Cl@ven, administrazio publikoetan egiten dituzun  
online kudeaketetan identifikatzeko modu erraz eta seguruan

## OINARRIZKO ERREGISTROA



ERREGISTRA ZAITEZ ZIURTAGIRI DIGITALIK  
GABE [clave.navarra.es](http://clave.navarra.es) helbidean  
"Ez dut ziurtagiri elektronikorik" hautatuz.



ONLINE SARBIDEA administrazio publikoetan  
GEHIEN ESKATZEN DIREN IZAPIDEETARA,  
Errenta Aitorpenera kasu.

## ERREGISTRO AURRERATUA





Eskuratzeko, ZIURTAGIRI DIGITALA IZATEA EDO  
HITZORDUA ESKATZEA BEHARREZKO DA (kontsultatu  
zein den hurbilen duzun bulegoa [clave.navarra.es](http://clave.navarra.es)  
helbidean).



Cl@veren oinarrizko erregistroko IZAPIDEETARAKO  
SARBIDEA, baita AURRERATUAGOETARAKOA ere,  
Gizarte Segurantzara edo Historia Klinikora kasu.

NAN + PIN identifikazio sistemak, Errenta Aitorpena eta Nafarroako Gobernuaren beste online izapide batzuk egiteko erabiltzen denak, oro har erabilgarri egoteari utziko dio irailaren 1ean.

Cl@ve sistema seguruagoa eta gailu berrieekin zein beste administrazio batzuekin bateragarriagoa da.  
Aldatu Cl@vera!



UZTAILAREN 30EAN

**UDAKO BEREZIA**

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

PUBLI@GUAIXE.EUS | 661 523 245 | 948 564 275 (1 LUZAPENA)





Altsasuko Bakea kalea.



Altsasuko Erkuden kaleko eraikinak.

# Alokairuko etxebizitzaren beharra jakin nahi da

Altsasuko Udalak inkesta bidez informazioa jaso nahi du. Etxebizitzaren alokairua sustatzeko neurriak martxan jartzeko baliagarria den galdetegia 'www.altsasu.eus' webgunean erantzun daiteke ostegunera arte

## ALTSASU

Altsasuko Udalak, Nafarroako Gobernuaren menpekora den Nasuvinsa sozietate publikoarekin batera, herrian etxebizitzak alokatzeko neurriak ezarri nahi ditu. Horretarako, Altsasun alokairuko etxebizitzaren egungo eskaera zein den ezagutu nahi dute. Errealitate horren berri ezagututa, etxebizitzaren alokairua sustatzeko neurriak hartu ahal izateko. Horregatik, Altsasuko Udalak herrian etxebizitza alokatu nahiko luketenei [www.altsasu.eus](http://www.altsasu.eus) webgunean dagoen inkesta erantzutera gonbidatu ditu. Inkesta anonimoa da eta hura erantzuteko hilaren 17ra arte dago epea.

eskatzen dira inkestan: etxebizitza iraunkorra, eskola denboraldiak irauten duen bitartean, autonomia ekonomikoa handiago izan arte edo beste aukerara bat.

Alokatu nahi den etxebizitzan nola bizi nahiko litzatekeen ere zehaztu behar da: bakarrik, familiarekin, beste pertsona batekin partekatuzko, pertsona bat baino gehiagorekin partekatuzko edo ezagutzen ez ditudan pertsonekin partekatuzko. Norberak urtean zenbat irabazten duen zehazteko sei aukera eskaintzen ditu galdetegiak, baikoitzak berea markatzeko.

Altsasuko Udalak prestatutako galdetegiko galdera bat

da etxebizitza izateko laguntzak dauden ezagutzen den edo ez. Horrekin batera, alokairuagatik zenbat ordaindu dezaketenez zehazteko eskatzen da eta horretarako ematen diren bost aukeretako baten alde egin behar dute inkesta erantzuten dutenek. Eta alokatutako etxebizitza horretan bizitzera sartzerakoan nahiko luketen oinarritzko ekipamendua zehazteko eskatzen du ere: sukalde ekipatua, etxebizitza ekipatua, hutsik dagoen etxebizitza edota igogailua izatea. Azken galderaren bidez alokatu nahi den etxebizitzak arkitektura oztopoak izatean nahi den edo ez argitu beharko da.

# Udalak etxebizitza hutsen gaineko zerga onartu du

Hutsik dauden ondasunen katastro balioaren arabera zerga pagatu beharko dute jabeek

## ALTSASU

Nafarroako Gobernua Etxebizitza Hutsen Erregistroa osatzen hasi da eta sortu ahala udalei hartan jasota dauden ondasunen berri ematen die udalei. Izan ere, udalek informazio horrekin herriko Etxebizitza Hutsen Zentsua sortu behar dute eta legeari segituz, etxebizitza horiei zerga bat kobratu behar diete, ondasunak duen katastroko balioaren arabera dena.

Foru administrazioak Altsasuko Udalari jakinarazi dio has-teko bost etxebizitza huts atzeman dituela herrian. Hala ere, gehiagoren berri jasoko dutela suposatzen du Javier Ollo Martinez alkateak. Legeak dioenari jarraituta, zentsua sortu eta han jasotako ondasunei aplikatu beharreko zerga onartu du udalak. Horren arabera aurreko etxe hutsen jabeek haren katastro balioaren %0,25eko tasa pagatu

beharko diote udalari. 2022an etxeak hutsik segitzen badu tasa %0,3246koa izanen da. Udalak erabakia hartu eta bi urtera, 2023an, etxebizitza hutsik segitzen badu ordaindu beharreko tasa %1ekoa izanen da. Eta, azkenik, udalak erabakia hartu duenetik hiru urte edo gehiago (2024 eta hurrengoak) hutsik dauden etxebizitzaren jabeek katastroko balioaren %1,5eko adinako zerga pagatu beharko dute.

## FRONTOIA

Burunda frontoian hainbat lan egin ziren joan den urtea irekiera lizentzia lortu eta foru administrazioaren Babes Zibilaren eskakizuna bete ahal izateko. Aste honetan frontoiko kantzari tratamendu berezia eman zaio. Alkateak iragarri duenez, gari-laren 2an Nafarroako Lau eta Erdiko txapelketako partida hartuko du Burundak.

## Inkesta

Udalak prestatutako galdetegia erantzun nahi duenak, lehen-lehenik generoa eta adina zehaztu beharko ditu. Horren ondoren nahiko luketen etxebizitza definitzeko galdera sorta heldu da. Hasteko galdetegia erantzuten dutenek nahi luketen etxebizitza mota zein den zehaztu beharko dute: apartamentua (logela 1), pisua (2 logela), pisua (3 logela), etxebizitza isolatua edo beste aukeraren bat. Bestetik, alokairuaren iraupenaren inguruan ere zehaztzen

**BIL TOKI**  
TIBERKE • JETETKEA

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

*Cure terram desfrutatu!*

948 467 876 • Altsasu

**kaxeta**  
LIBURU DENDA

Udarako presta zaitez!

fotokopia@kaxeta.net  
628 542 519 | 948 460 477

**PORTUKO**

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988



Arbizuko Olatzeako belardiak bostehun pertsona hartu zituen.

## Askotariko ekarpenekin omendu zuten Balda Arbizun

Militantzia kide, lagun eta herrikide izandakoari ahots eta doinu ugarik eman zioten azken agurra igandean

ARBIZU

Trikitilarien doinuak batetik, zanpantzarra eta momotxorroak bestetik, Fran Balda Arañaren irudia oholtzara eramaten. Ken 7ren doinura dantzatutako aurraskua. Hitzartzeak. Arbizuko musikariaren kantua. Lagunak. Argi Bidea elkarte. Nafarroako ezker abertzaleko, Sortuko eta Ernaiko kideen esanak. Horien bidez oroitu zuten igandean Fran Balda Araña zena, hari emandako azken agurrean. "Bizitza oso bat militantziari emana. Zailtasunetan, beti aurrera. Ezker abertzaleko militante osoa,

leiala beti". Hala definitu zuten eta "bere tokia kolektiboki betetzen saiatuko" zirela gaztigatu zuten oholtzatik. Akaberan arbizuarrek eta kuadrillakoek Franen omenez eta bizitzaren alde topa egin zuten.

Hizlarien artean, Mikel Mundiñano Sareko kideak esan zuten, "Fran pozik zegoen" espetetako mugimenduengatik. Baita "arduratuta, inoiz baino garrantzitsuago delako presoen etxeratzearen aldeko bide horretan pausoak ematea, presoen korapiloa askatzeko". Kartzelak husteko aukerak ikusten zituen.



Larunbatean aldarrikapenak enpresaraino eraman zituzten. Aste honetan bi orduko lanuzteak egin dituzte.

# Hitzarmen eskaera La Vasco Navarran

Larunbateko manifestazioko eta atzoko arratsaldeko eta gaueko lan uztearen ondoren, gaurko goizeko txandan langileak lanuzteak egitera deitu dituzte LABek eta CCOOk, baita hilabete honetako astelehen eta ostegunetan ere

OLATZAGUTIA

La Vasco Navarra enpresako langileek atzo hasi zituzten lan uzteak, gaur segida izanen dutenak. LAB eta CCOO dira deitzaileak. Gainera, hilaren 14, 17, 21, 24 eta 28rako lan txanda bakoitzean langileak ordu bateko lanuzteak deitu dituzte. Enpresa batzordean (LAB-ek bi delegatu eta bana CCOOk, ELAketa UGTk) gehiengoaren diren sindikatuak deitutako mobilizazioak larunbateko manifestazioarekin hasi ziren, 250 bat pertsonak enpresa hitzarmen eta lan baldintza duinak aldarrikatu zituzten.

Gaur egun La Vasco Navarra enpresak ehun bat langile ditu, "60-70 inguru dira enpresak kontratatutakoak eta gainerakoak Aldi Baterako Lan Enpresen (ABLE) bidez. Langileriaren artean emakumezko eta migratzaile asko daude". Langileen ordezkariak azaldu zuten, "duela urte bat enpresan halako mobilizaziorik izanen zela pentsa ezina zen. Baina hemen gaude gure

eskubideak aldarrikatzen plantillaren zati handi bat. Hau bera lorpen historikoa da La Vasco Navarran" nabarmendu zuten.

**Eskakizunak**

Lan baldintza txarrak zituztela gaztigatu zuten langileen ordezkariak: "lan orduak asko dira, ABLE bidez gutxienez 18 hilabete pasatzen dituzte lanean, inolako eskubiderik gabe. Hori utzi nahi dugu atzean". Zehaztu zuten, "lan baldintza duinak nahi ditugu; irabazten den dirua ez da lan egiten denaren errekonpentsa, uste dugu gehiago merezi dugula. Igoera bat eskatzen dugu, soldataren kontzeptu guztiei eraginen dion igoera. Gutxien kobratzen duen jendeak ezin du

**LANGILEEN ORDEZKARIEK ENPRESAREN EGOERA "BIKAINA" DELA AZALDU DUTE**

horrela segitu. Alde handia dago eta horri aurre egin nahi diogu". Horri lotuta, "lan kategorien eta lanpostuen ikerketa egitea exijitu zuten langileek, "horrela gizonezko eta emakumezkoen arteko soldata arrakala ezabatzen hasteko, baita enpresan dauden hainbat maila ere". ABLEak alde batera uztea nahi dugu, edo gutxienez puntuala izatea".

Horregatik egoera aldatzea eskatu zuten: "badakigu aldaketa hori ez zela negoziazio mahaian lortuko, enpresak urteetan izandako jokabideagatik. Ia guztiak borroka egin behar diren kontzientzia genuen, erraza ez izan arren, horrela lortzen baitira gauzak". Langileek gaztigatu zuten, "zuzendaritzak estatuko hitzarmenari dagozkion kontzeptuak besterik ez ditu hobetu nahi. Beti mehatxatzen du estatuko itunera bueltatuko garela. Guk enpresa hitzarmena nahi dugu". Langileen iritziz, "zuzendaria ez du ezer ematen, edo oso gutxi. Eta ez gaude ados".

## DUELA 25 URTE...



### Mendi bizikleta zeharkaldi "erraldoia"

Beste herrietako hainbat zeharkalditan parte hartu ondoren, Burunda txirrindulari taldeko kideek Altsasun halako proba ez lehiakorra antolatzea erabaki zuten. Antolatzaileek ibilbidearen bi gauza nabarmendu zituzten: zati batzuetan zuen gogortasuna eta bere edertasuna. Altsasu, Urdiain eta Olatzagutiko dermioetan barna prestatutako ibilbidean 370 txirrindulari ibili ziren. Abia da bizian ibili ziren. Burundakoak emaitzarekin pozik, errepikatze asmoa zuten.



Lakuntzako eskolako ikasleak Arbizun dagoen UtzubarEKOgunean. HONDAKIN ZERBITZUA

# Hondakinen kudeaketari buruzko ikasgaia

Ikasturte akabera eta Ingurumenaren Nazioarteko Eguna (garagarrilak 5) zela eta, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko hezitzaileek egiten duten lanaren berri eman diete ikasleei UtzubarEKOgunean eta Altsasuko garbigunean

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Arbizun duen azpiegitura orain arte zabortegei edo hondakindegia izenekin ezagutu dugu. Baina azpiegiturari UtzubarEKOgunea izena eman diote, "dagoeneko gunea ez delako hondakindegia bakarrik. Gaur egun hondakin asko zabortegei batean lurperatu ez daitezten, materialak gaika sailkatzen dira ondoren lehengai hori berrerabiltzeko. Horretarako, hainbat bide daude".

Hara joan ziren bizikletaz Lakuntzako eskolako 50 ikasle, 3. eta 4. mailakoak asteartean eta 5. eta 6. mailakoak atzo. UtzubarEKOgunea bertatik bertara ezagutu zuten eta Hondakin Zerbitzuko hezitzaileek han egiten den lanaz esandakoa adi-adi entzun zuten. Ikasleek ikusi zuten Mank-ek zein lan egiten duen hondakin bakoitzak bere bidea egin dezan. Baina, hezitzaileak gaztigatu zuenez, "bide hori gu guztion etxeetan hasten da, ahalik eta

hondakin gutxien sortzen, hondakin mota bakoitza ongi bereiziz eta dagokion lekuan utziz".

Bisitan ikasleek UtzubarEKOguneko hondakinen transferentzi gunean (errefusa Tuterako El Culebrete hondakindegira eta ontzi arinak Azkoiengo sailkatze plantara eramateko), konpost planta (ibarreko materia organikoa konpost bihurtzen duena), garbigunea (pilak, tresna elektrikoak, tonerrak, bateriak, pintura, motor olioia, erradiografiak, fitosanitarioak, obra txikietako hondakinak eta abar jasotzen dute), tamaina handiko hondakinak (jostailuak, arropa, altzariak, oheak eta abar), industria hondakinen hondakindegia (silo plastikoa, egurra, plastiko gogo-

**HONDAKIN BAKOITZAK BERE BIDEA EGIN DEZAN MANK-EK EGITEN DUEN LANA EZAGUTU ZUTEN**

rra, PVC eta txatarra) eta biltegia daude gaur egun. Garbigune mugikorrean jasotakoak Arbizun bukatzen duela ere jakin zuten.

## Altsasu

Mank-ek Altsasun garbigunea du eta hura ezagutzera joan ziren Iñigo Aritza ikastolako DBH-ko 1., 2. eta 3. mailako ikasleak atzo eta asteazkenean 4. mailako txanda izanzen da. Ikasleek bisitaren bidez jakin zuten Altsasuko edukiontzien ondoan ez dela tamaina handiko hondakinik utzi behar (sofak, koltxoiak, hozkailuak,...) garbigunerera eraman behar direlako. Gauza bera egin behar dute etxean sortzen diren eta arriskua duten hondakinekin (pilak, pintura, motor olioia, tresna elektrikoak, bateriak, gasolioa, izotz kontrakoa, fitosanitarioak, eta abar) eta berrerabil daitezkeen gauzekin: arropa, jostailuak, gauza txikiak, bestelakoak. Azken horiek Emauseko Trapuketariak eramaten dituzte egokitu eta berrerabilpena sustatzeko.



Amandrea kaleko konpostagailuko konposta banatzen urteroko festan. ARTXIBOA

## Organikopan Etxarri Aranatz Altsasuren aurretik 21-2

Nafarroako Hondakin Partzuergoak hondakinen gaikako bilketan sentsibilizatzeko lehiaketa da Organikopa

## SAKANA


Lehiaketaren helburua da materia organikoaren banaketa sustatzea nafarren artean eta, horrela, birziklatzen den organiko kopurua igotzea. Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak Etxarri Aranatz eta Altsasuren arteko materia organikoaren bilketa lehia antolatu du. Hondakin bilketa sistema desberdinak dituzte bi herrietan. Zerbitzutik azaldu dutenez, Etxarri Aranatz as-telehen eta ostegunetan postetatik bildutako gai organikoaren pisua aztertuko da astero. Altsasun, berriz, edukiontzi marroien bitartez jasotakoa. Maiatzaren 3tik garilaren 3ra martxan dago materia organiko gehien biltzen duen herrien arteko lehia.

Organikopa hasi zenetik, batz bestea, asteko etxarriak bakoitzaren 4,21 kilo materia organiko jaso dituzte astero (4,05; 4,15; 4,15; 4,18 eta 4,54). Altsasun, berriz, herritar bakoitzeko astero 0,41 kilo materia organiko jaso dituzte (0,40; 0,41; 0,41; 0,42 eta 0,41). Bost aste horietan etxarriak bakoitzeko 21,07 kilo materia organiko jaso ditu Mank-ek eta altsasuarren 2,05 kilo. Olatz Garde Mazkiaran hondakin teknikariak jakinarazi duenez, "bi herrietan bildutako materia organikoa kalitate onekoa da". Guzti-guztia konposta egiteko erabiliko dute UtzubarEKOgunean.

Lehiaketako behin behineko emaitzei dagokionez, Gardek azaldu duenez, "desberdintasun handia dago parte hartze maila-

gatik. Etxarriar ia %100ek bereizten du organikoa konposta edo atez ateko bilketaren bitartez. Altsasun, berriz, %26,08k bereizten du organikoa, konposta edo edukiontzi marroien bitartez". Horregatik, Gardek altsasuarren organikoa bereiztera animatu ditu, "oso erraza baita eta izugarri murriztuko baitu etxeetan sortutako errefusa kopurua". Konpostagailua eskatzeko, bosgarren edukiontziko giltza eta pertza nahi dituenak, edo zalan-tzak argitzeko 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete edo [info@sakana-mank.eus](mailto:info@sakana-mank.eus) helbidera idatzi.

Lehiaketa bukaeran organikoaren bilketan emaitza onenak dituen herriari zerbitzuak 5.000 euroko balioa duten hainbat hiri altzari emanen dizkio. Hiri altzari horiek Nafarroan sortutako hondakin plastikoekin eginak dira.





Gazte berriemaileak. GAZTERIA ZERBITZUA

## Egitekoak despedituta, berriemaileei esker ona

Gazteria Zerbitzuaren eskaintzen berri ikastetxeetan eta lagunen artean zabaldu dute

### ALTSASU

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak bere berriemaileek egindako lana eskertu du. Zerbitzuaren eta Intxostiapunta gazte gunearen jardueraren berri gazteen artean zabaltzeaz arduratu dira berriemaileak: Tamara Martis Cerrillo eta Jonathan Laura Pacifico Lanbide Heziketa institutuan, Cristina Matias Tapia eta Aitziber Da Costa Taboada Altsasu institutuan, Christian Juarez Melchor Sagrado Corazon ikastetxean eta Eneko Andueza Martinez de Apellaniz eta Naroa Saturio Lezea Iñigo Aritzta ikastolan. Haiek arduratu dira "gazteek informazioa zuzenean" jasotzeaz.

Egindako lana eta hartutako erantzukizuna eskertu zizkieten Javier Ollo Martinez alkateak eta Mari Carmen Goikoetxea Napal gazteria zinegotziak. Eta egindako lanaren sari gisa ziurtagiria eta 120 euro eman zizkieten berriemaileei. Blanki Torres gazteria teknikariak jakinarazi duenez, "berriemaileen programa mantentzea aurreikusitako dugu, balio handiko esperientzia izan dela uste baitugu, bai pedagogia aldetik, bai Gazteria Zerbitzuaren helburu asko lortzeko ere". Bestetik, ikasle eta ikastetxe guztiei eskerrak eman dizkie.



Uharte Arakilgo udaletxean ongi etorri pankarta koloretsua zintzilik. ANITZARTEAN

## Udala aldamen berriei hurbiltzeko ariketa Uhartan

Larunbatean egin zen eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak gutxienez beste bost herrietan egingen ditu

### SAKANA

Ongi etorri hitza dozena bat hizkuntzatan idatzia zegoen pankarta handi batek egin ziren harrera larunbat eguerdian Uhart Arakilgo udaletxera joan ziren guztiei. "Haren bidez etorri berriei adierazi nahi diegu kontuan hartzen ditugula beraien ama hizkuntzak eta abegikortasun keinua ere izan nahi du". Udaltxe barruan uhartear berriei harrera ekitaldia egin zitzaion. Zinegotzi batek eta uhartear batek banatu zituzten larunbaterako gonbidapenak. "Keinu horrekin hurbiltasuna adierazteaz aparte, parte hartze sentimendu txiki bat sortzen da". Hogei uhartear berri zeuden gonbidatuta, baina lanagatik edo bestelako konpromisoengatik hiru izan ziren harreran.

Larunbatean Uhart Arakilgo udaletxean egindakoaren bidez "udala herritar berriei hurbildu nahi zaie, baita aurrez aurreko ongi etorria eskaini ere". Txomin Uhart Baleztena eta Martze Villanueva Palacios zinegotziak, Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Juana Jaka, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko Izaskun Errazkin eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko Bego Zestau Baraibar izan ziren uhartear berriei harrera egin zietenak. Udal ordezkariak herritar berriei Uhart Arakilera ongi etorria eman ondoren, herrian dauden zerbitzuen berri eman zieten. Horrekin batera teknikariak Sakanako zerbitzuen berri eman

zieten. Ahoz azaldutakoa jasotzen duen argibide orria jaso zuten uhartear berriei. Hartan zerbitzuen telefonoak eta e-postak daude.

### Herri gehiagotan

Joan den urtean Arbizon eta Etxarri Aranatzeko harrera ekitaldiak egin ondoren, Sakanako Mankomunitateko zerbitzuek eta Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ongi etorri ekitaldiak ibarreko herri gehiagotan egitea aurreikusten ari dira. Aurten Uhart Arakilez aparte, beste bost udalerritan egingen dira harrera ekitaldiak: Arakil, Irurtzun, Lakuntza, Urdian eta Ziordia. Baina beste herriren batek egitea nahiko balu aukera legokeela gaztigatu du Zestauk.

Sakanako Mankomunitateko kulturartekotasun teknikariak azaldu duenez, Arbizon eta Etxarri Aranatzeko hainbat informazio eman zitzaion, besteak beste, euskarari buruzkoa. "Eta hortik euskara ikasteko nahia sortu da", jakinarazi du Zestauk, "eta hor gabiltza, euskara ikastaro bat antolatzen". Aitzindari izan ziren bi udalak aurten etorri berriei harrera egiteko ekitaldia egingen dute. "Anitzartean Zerbitzuaren helburua da udal guztietik pauso hori ematea. Helburua da udal harrera ekitaldiak praktika on gisa barneratzea eta jarraipena izatea, urtero edo behar den bakoitzean egitea", argitu du ibarreko erakundeko teknikariak.



Virginia Eraso Barrio Nafarroako Gobernuako kidea.

# "Bakoitza bere aldetik, elkarbizitzarik gabe"

## VIRIGINIA ERASO BERRIO

HARRERA ETA AKONPAINAMENDU ZERBITZUKO ZUZENDARIA Foru administrazioa harrera plana eta elkarbizitzarako estrategia lantzen ari dira eta horien berri ematera etorri ziren bere ordezkariak, baita ibarreko premiak ezagutzera

### Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

Sakanako Harrera Mahaiaren bilerara gonbidatua izategatik eskerrak eman zituen Nafarroako Gobernuko ordezkariak. **Zergatik etorri zarete Sakanako Harrera Mahaira?**

Nafarroako Gobernuan egin behar dugun lana herriekin eta mugimenduekin elkarlanean egin behar dugula ikusten dugu, baita Sakanarekin ere. Eta dudak arduragatik hemen egon behar dut, hemengo jendearekin eta hemen mugitzen diren entitate eta zerbitzuekin.

### Elkar ezagutzea garrantzitsua da?

Bai, zeren askotan gu gure bulegoetan gaude eta ez dugu ikusten benetan herrietan eta gertatzen ari dena. Batzuetan galtzeko arriskua daukagu esperientziak eta kalean gertatzen dena.

### Informazio hori guztia jasotzeko etorri zarete?

Informazioa eta eskualdean dauden beharrak jasotzeko etortzen gara, baita guk emateko ere. Sakanako Harrera Mahaia azkeneko bildu zenean bisita atera ziren eta biek erantzuna izan dute.



### Zein bi eskaerak jaso dute erantzuna?

Aurrekoan azaldu ziguten bazi-rela ume batzuk ikasturtea hasita, beranduegi iritsi zirenak eta orduan integrazio edo eskolan arazoak zituztenak. Horrekin zerbait egiterik ba ote genuen galdetu ziguten eta ume horien dako prestakuntza prestatzen ari gara. Bestetik, guk daukagu Atzerriarren Atalean aholkularitza zerbitzua. Eta esan ziguten nahiko lanpetuta zebilela teknikaria eta kontratua %25 handitu dugu.

### Gaur ere eskaerak jaso dituzte?

Bai, esaterako, euskara teknikariak azaldu duenez, Euskarabi-deak euskara ikasteko beka batzuk ematen ditu. Baina, dirudienez, bakarrik paperak dituztenendako dira. Hori ez nekien, jaso dut eta ikusiko dugu zerbait egin dezakegun.

### Nafarroako Gobernua kulturarteko elkarbizitzaren inguruko diagnostia egiten ari da, ezta?

Aurten hiru plan egiten ari gara: harrera plana, elkarbizitzarako estrategia eta orain martxan jarri den arrazakeria eta xenofobiaren kontrako plana. Lehen-

## "DENOK ZAILTASUNAK BADITUGU, MIGRATUTAKO PERTSONEK ASKOZ HANDIAGOAK DITUZTE"

dabiziko bi plan horien diagnostiak maiztzean aurkeztu ziren. Eta Sakanako Harrera Mahaia-ri aurkeztu dizkiegu. Alde batetik, elkarbizitzarako strategiarena. Argi dago, Nafarroan istilu askoren berri ez da ateratzen hedabideetan. Eta hori da hemen "aldi bereko izate bake-tsua" egiten delako, hau da, "zu alde batean eta ni bestean"; bakoitza bere aldetik, baina elkarbizitza egin gabe. Bestetik, harrera planeko diagnostian gehien atera dena da zer zailtasun dituzten etortzen diren pertsonak. Gaur egun, bizitzen ari garen egoerarekin, denok hainbat esparrutan zailtasunak baldin baditugu, migratutako pertsonak guk baino askoz handiagoak dituzte.

### Eskualdeetara, Sakanara, nola iritsiko dira diagnostia horren emaitzak edo tresnak?

Bai plana bai estrategia Nafarroa osorako izanen dira. Sakanan egin diren mahaietan eta bilere-tan parte hartu dute. Eskaera guztiak jaso dira. Ondoren eskualde bakoitzari emanen zaio ahal zaiona, baina beharren arabera izanen da. Behar bada Sakanan behar dena ez da Tuteran behar dena.

### Bakarrik dauden adingabe atzeritarrei harrera egiteko tokietako bat izan zen Sakana 2019an. Iturmendiko egoitza itxi ondoren, Sakanan gazte horietakoren bat dago?

Gai hori zuzenean guk ez dugu eramaten, baina lankideak azaldu duenez, Iturmendiko egoitza itxi zen. Adin txikiko gazte horiek etorri zirenean nolabaiteko sarbide berezia egin zen, beraiendako propio. Denborarekin ikusi dena da sarbide bakarra izan behar dela Nafarroan bizi diren adingabe guztiendako. Hori sortzen ari dira. Eta, oraingoz, Iturmendiko egoitza itxita egonen da.

### Migratioak segitzen du: Ceuta, Kanariar Irlak, paterak... Nafarroak gazte edo migratzaile gehiago hartuko ditu?

Nafarroa beti izan da lehendabizikoetarikoa bai umeak bai jendea hartzeko. Batzuetan guk eskatu ditugu Madrilen, baina ez dizkigute eman. Hori batzuetan gure esparrutik kanpo gelditzen da, zoritxarrez. Zeren guk pentsatzen dugu Nafarroa jendea hartzeko prest dagoela beti, eta halako jendea ere, jakina. Batzuetan ez da dena ateratzen nahi dugun bezala.

# Harrera duinerako informazio trukaketa

Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak beraien egitasmoen berri eman dute eta, bide batez, ibarreko eragileak jakinaren gainean jarri dituzte Sakanako Harrera Mahaiaren bileran

### Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

Sakanara bizitzera datozen pertsonak ahalik eta harrera egokiena eskaintzeko sare eraginkorra izan nahi du Sakanako Harrera Mahaia. Horrela, Migratioek dakartzaten errealitate aldakorrei ahalik eta hobekien zein azkarren erantzuteko eta, horretarako, behar diren baliabideak txertatu. Aldi berean, mahaiaik oztopoei aurre egiteko hausnarketa eta irtenbideen bilakaerarako gunea izan nahi du. Azkenik, sakandarrak sentsibilizatu nahi ditu bertara etorritakoei harrera duina eskaini beharraz.

Hainbat eragile dira mahaiko kide. Asteartean Arruazun 23 elkartu ziren. Bilerek beraiek elkar ezagutzeko balio dute, baita partaideek hizkera eta inklusio jarrera ezagutu, barneratu eta erabiltzeko. Hori barneratuta inklusibitatea helburu duten aukera berdintasunaren aldeko aldarrikapenerako proposamen, protokoloak eta beste martxan jartzen ditu.

Helburu horiekin elkartu zen hirugarrenez Sakanako Harrera Mahaia Arruazuko herriaren etxeko ganboikoan asteartean. Bilera hasteko Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikari Bego Zestau Baraibarrek aurtun garatzen ari diren lanen berri eman zuen. Horien artean daude: Altsasun egindako elkartasun hamabostaldia; sei udalerritan eginen diren harrera ekitaldiak; Zurrumurrueen kontrako ipuin laburren II lehiaketa; Bidelagun proiektua Olatzagutian; Kulturarteko elkarbizitzaren diagnostia Altsasu institutuan hainbat eskualdeko eragileekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) gidaritzapean; Irurtzunen kulturarteko elkarbizitzaren inguruko diagnostiarene hasiera herriko hainbat eragileekin eta NUPeko gidaritzapean eta Iñigo



Bileran parte hartu zuten guztiak akaberan Anitzartean oroigarria jaso zuten.

## HARRERA PROZESUETAN EUSKARAREKIKO KEZKA ADIERAZI ZIETEN GOBERNUKOEI

Aritza ikastolako DBH maila guztietan aste honetan egindako kultura aniztasuna, giza eskubideak, zurrumurrueen lanketa.

Bileran parte hartu zuten Migrazio Politiketako zuzendaritza nagusiko Idoia Saralegi San Sebastianek eta Virginia Eraso Barriok kultura arteko elkarbizitzaren inguruko strategiari buruzko lanketa, harrera inklusiborako planaren zirriborroa eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako planaren nondik norakoak azaldu zituzten. Eta Haurtzaro eta Familia ataleko Olga Chueca Chuecak, berriz, jakinarazi zuen Nafarroako Kanariar irletan zeuden migratutako 15 gazte hartu dituela "lurralde arteko elkartasunaren" barruan. Duela aste batzuk Ceutan sartutako sei gazte Nafarroan direla ere jakinarazi zuen. Hiru eragileak gaztigitatu zuten, Nafarroan

etxebizitza eskuratzeko zailtasunak daude eta zailtasun hori areagotzen dela atzerriko jatorriko gazteen kasuan. Sakandarrak epe motz-ertainerako adin txikikoen harrerarako aurreikuspenik ba ote zuten eta Sakanan zerbait aurreikusten zuten galdetu zieten. Euskararekiko ere kezka agertu zen.

### Bileran izandakoak

Sakanako Mankomunitateko lehendakaria eta kudeatzailea, Euskara eta Anitzartean zerbitzuetako teknikariak, Nafar Lansare, Sakanako Garapen Agentzia, Sakanako hiru Oinarritzako Gizarte Zerbitzuak, Altsasuko Udaleko berdintasun teknikaria, Arakilgo, Altsasuko eta Ziordiko zinegotziak, Gurutze Gorria, Sakana Harrera Harana eta Irurtzango eta Etxarri Aranazko osasun etxeetako ordezkariak. Nafarroako Gobernutik, berriz, Ayllu zerbitzua, Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Borrokarako zuzendaria, Migratzaileak Hartzeko eta Laguntzeko Zerbitzuko zuzendaria eta Haurtzar eta Familia ataleko zuzendaritza ordea.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 11

**ALTSASU Altsasuko eskaldunok udalari bost! elkarretaratzea EHE-k deituta.**  
19:00etan, udaletxearen aurrean.

**OLAZTI Los sueños de Einstein** liburuaz Irakurle Klubaren ikasturteko azken saioan.  
20:00etan, liburutegian.

## LARUNBATA 12

**LAKUNTZA Plaura Bakarrilketa** tour kontzertua. 5 euro.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

**Borrar el historial** gaurkotasuneko filmaren emanaldia  
Ostirala 11: 19:00  
Igandea 13: 19:30

19:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ** Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasleen emanaldia. Bi saio adinka banatuta.

18:30etan eta 19:30etan, plazan.

**ALTSASU Iheskide Tinko gurean** diskoaren aurkezpen kontzertua.  
19:30etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 13

**ALTSASU Itzagara** ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.  
08:00etan, egoitzan.

**ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira** elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## OSTEGUNA 17

**ARBIZU Izadi, espetxean** jaiotako atzera kontaketa dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia.  
19:00etan, udaletxean.

**ALTSASU Maria Pinto** idazlearen *Una vida entre letras* liburuaren aurkezpena.  
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.



**ALTSASU Itziar Nazabalen** tailerraren lanen erakusketa. Ekainaren 13ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan zuzeneko baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era.

**OLAZTI Oroimina** loretan. 30 urte deserrian dokumentalaren emanaldia eta *Kaxa Hutsak* euskal iheslarien esperientziei buruzko dokumentalaren aurkezpena. Iker Oiz Elgorriaga egiletako batek parte hartuko du bertan.  
19:00etan, kultur etxean.

# Bazkide Zozketa

## 1. SARIA

**LACTURALE:** Esneki lotea  
**GAZTEZULO:** 3 hilabetez doan  
**GUAIXE FUNDAZIOA:** 25 urteen kit-a


## 2. eta 3. SARIAK

**LACTURALE:** Esneki lotea  
**GUAIXE FUNDAZIOA:** 25 urteen kit-a




## EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 11




Larunbata, 12



Igandea, 13



Astelehena, 14



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LUR SAILA

## SALGAI

**Etxarri Aranatzen, Enfermogurutze demioan, 8500m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai:** gutiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tñora.

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Irurtzungo Pikuxarrek taberna berrian lan egiteko zerbitzari bila:** Tabernetako zerbitzari bezala esperientzia, euskararen ezagutza eta txandaka lan egiteko prestasuna beharrezkoak izango dira. Asteko 37 orduko kontratua edo asteburuetako kontratu partzialak eskaintzen dira. Interesatuak bidali [Cva.pikutaberna@gmail.com](mailto:Cva.pikutaberna@gmail.com) helbidera. Jasotako CV-ekin Lan Poltsa osatuko da.

## GALDUTAKOAK

**Altsasun betaurreko graduatuak galduta:** Astelehenean, San Juan kale inguruan, estubxe eta funda beltz baten barruan. Aurkitzen badituzu, mesedez, deitu 686 662 241 tñora.

## IKASTAROA

**Gazteen parte hartze aktibo ikastaroa Altsasun eta Etxarri Aranatzen:** Urtxintxaren eskolaren eskutik; parte hartu, jolastu, hausnartu eta partekatu zure ideiak ekintzara eramateko. Uztailaren 19, 20, 21 eta 22an goizeko 10:00etatik 14:00etara. Matrikulak eta informazioa Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan; Altsasun 948 467 662 telefonora deituz edo 616 841 995 WhatsAppera idatziz, eta Etxarri Aranatzen 948 460 752 zenbakian edo 679 534 481 WhatsAppean.

## OHARRAK

**Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua:** Aurtengo egoera bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatu dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uztailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Orduetgia goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Plaza mugatuak direnez aukeraketa irizpideak

honako hauek izango dira: 1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren etxebizitza dutenak, 3. Irurtzunen erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40€ eta ez erroldatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonon.

**Lakuntzako festetako zapien banaketa:** 2020 urtean jaito eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaiten zapia jaso nahi badute, udaletxean izena eman beharko dute, uztailaren 23a baino lehen.

**Udan Euskaraz tailerra Lakuntzan:** 3 urtetik gorako haurrei zuzendua, udan euskaraz aritzeko gunea sortzeko helburuarekin. Ekainaren 28tik uztailaren 30era izango da, 10:00etatik 13:00etara. Elkargunea Kultur etxean izango den arren, ahal den einean ekintzak kalean egiten saiatuko dira. Izen emateko [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) weborrian dagoen galdetegia bete behar da eta ordainketa ekainaren 14a baino lehen egin behar da.

**Lakuntzako Musika eskolako matrikulazio kanpaina:** maiatzaren 25etik ekainaren 15era arte, internet bidez egin ahal izango da matrikulazioa. Eskaintza: musika eta mugimendua 3-6 urte bitarteko haurrentzat, musika lenguaia, koroa, talde instrumentala eta konboak, instrumentuak (akordeoia, alboka, bateria, gitara, trikitixa, tronpetta, txistu, pianoa). Aurtengo berritasuna Pandero taillerria: heldu, gazte zein haurrentzat, lenguaia musikalik gabe, maila ezberdinak. Bestalde, instrumentuak ezagutzeko Erronda instrumental presentziala egingo da ekainaren 22an, 15:30ean. Informazio gehiago Lakuntzako udaletxean edo [musikaeskola@lakuntza.eus](mailto:musikaeskola@lakuntza.eus) helbidera idatziz.

**Gaua Urbasan pasa nahi duzu zuk egindako VI-VAC batean? Lo egitera mendira Bizirapen taillerra!** Zatoz eremu karstiko honetan dagoen 3Dko mundua ezagutu eta orientatzen ikastera. Menditik 10 km ibiltzeko gaitasuna duten 16-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ekainaren

26an 15:00etan hasi eta ekainaren 27ko 13:00ak arte. Informazio gehiago eta izen ematea Mankeko 948 464 866 edo 648 070 710 telefonoetan edo [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus) / [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus) e-postetan. Plaza mugatuak direnez, izen ematea ezinbestekoa da, epea ekainaren 21ean amaitzen da. Segurtasun neurriak bermatuko dira. Prezioa 25 euro.

**Etxarri Aranatzko Udal musika eskolan, 2021/2022 ikasturterako matrikulazioa:** ekainaren 9tik ekainaren 30a arte, udal bulegoan edo [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orriaren bitartez. Ez da plaza bermatuko abuztuaren 16tik irailaren 3ra arte izena ematen dutenen artean.

**Erabilgarri ez diren erradiografiak bilketa kanpaina farmazietan:** Nafarroako Farmaziliarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmaziliaria" GKE-k bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrek direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta bestelakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

**Uharte Arakilgo haurren zapiak:** 2020an jaito eta Uharte Arakilen erroldatuta dauden umeei, aurrerago zapia banatuko zaie. Erroldatuta ez dauden familiek eta interesa dutenek, ekainaren 20era arte izena eman dezakete [info@uhartearakil.com](mailto:info@uhartearakil.com) helbidera idatziz. 2019. urtean jaitako haurren zapiak ere banatuko dira.

**Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke:** Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatzen Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai

[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## ESKELA



**Leonor Bueno Martin**




Rakel Iriarte Bueno, Txikiako langilearen ama

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritzita ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak

## ESKELA



**Tomás Ruiz Muñoz**

(Gure lankide Erkuden Ruiz Barrosoren aitona)

Une latz hauetan familiaren saminarekin bat egiten dugu



Guaxe Fundazioako langileak

## EZKONTZAK

• **Estela Martina Hidalgo Ojeda eta Joaquin Goñi Jaka,** maiatzaren 29an Etxarri Aranatzen

## HERIOTZAK

• **Tomás Ruiz Muñoz,** ekainaren 10ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**Jarri zure iragarki laburra!**

948 56 42 75  
[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)  
[www.guaxe.eus/iragarkiak](http://www.guaxe.eus/iragarkiak)



[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## ESKELA

**Tomás Ruiz Muñoz**



Betiko gure bihotzetan

Zure familia

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**

edo [eskelak@guaxe.eus](mailto:eskelak@guaxe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZA barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Txapelketako finalistek txapelak eta oroigarriak jaso eta talde argazkia egin zuten finalak jokatu ondoren. IRURTZUN

# Irurtzunek Unai Lasoren maila berretsi zuen

**PILOTA** 39. Irurtzun Pilota Txapelketan emakumezkoetan Salsamendik eta Arratek jantzi zuten txapela, gizonzkoen 2. mailan Oskozek eta Santamariak –Aingeru De la Fuente lesionatu egin zen–, eta 1. mailan Lasok eta Minak sekulako erakustaldia egin zuten

Larunbatean 39. Irurtzun Pilota Txapelketako finalak hartu zituen Irurtzungeo Biaizpe pilotalekuak. Jendea poliki bildu zen frontoira –200 ikuslerendako aforoa zegoen–, eta giro ederra izan zen.

## Afizionatu onenak

Txapelketa apirilaren 5ean hasi zen. Emakumezkoen mailan 4 bikotek hartu zuten parte, gizonzkoen seniorren 1. mailan 12 bikotek eta gizonzkoen 2. mailan 9 bikotek, Nafarroako afizionatuen mailako pilotaririk onenak. "Txapelketa oso polita eta borrokatua izan da, afizionatuen mailako pilotari nafar onenak aritu direlako. Txapelketa ofizialetatik kanpo jokatu den txapelketa bakarrenetakoa izan da gurea, eta pilotariek asko eskertu dute" nabarmendu du Irurtzun klubeko presidente Miguel Beraza Loidik. Partida gehienak Irurtzunen jokatu dira, baina 5 jaialdi Labritek hartu zituen, Nafarroako Pilota Federazioarekin egindako akordioari esker.

Txapelketan egondako maila ikusita, final estu eta borrokatuak espero ziren, eta hein handi batean hala izan zen.

## Laila Salsamendi, gainetik

Lehendabizi emakumezkoen finala jokatu zen. Laila Salsamendik eta Arrate Bergarak partida ikusgarria egin zuten eta 11 tantotan utzi zituzten Andrea Aldaregia eta Olatz Ruiz de Larramendi. Laila Salsamendi nabarmendu zen gainontzekoen gainetik: sakez, gantxoaz, boleaz, txokoetan dejadak eginez, hormabikoz... sekulako tantoak egin zituen. Gaztea da eta badu zer ikasi, baina egun emakumezkoen pilotako zutabeetako bat da.

## De la Fuenteren lesioa

Ondoren gizonzkoen 2. mailako finalaren txanda izan zen. De la Fuentek (Buruzgain) eta Adrian Azpirozek (Irurtzun) Oberenako Oskoz eta Santamaria izan zituzten aurkari. Partida polita eta lehiatua ari zen izaten, baina

markagailuan 14nako berdinketa zegoenean De la Fuente lesionatu egin zen, ezkerreko sorbaldan kolpea hartu eta gero, eta partida utzi behar izan zuen. Oskozek eta Santamariak jantzi zituzten txapelak, inork nahi ez duen moduan.

## Unai Laso, koxka bat gorago

Gizonzkoen 1. mailako finalean txapelketan barna ikusi dena berretsi zen: Unai Laso gainontzekoak baino maila gorenagoan dagoela. 2020an Baikorekin bere kontratua berritzeko ez zen adostasunera heldu, eta taldea utzi zuen Biskarreteko pilotariak. Tartean, Baikoko pilotarien greba gertatu zen, eta berriki jakin da Baikok eskaintza egin diola

**FINALISTA GUZTIAK FIN IBILI ZIREN, BAINA LAIA SALSAMENDI ETA UNAI LASO NABARMENDU ZIREN**

## Emakume Master Cup etzi Etxarrin

Igandean I. Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Goma Txapelketako finalerdiak jokatu dira Etxarri Aranazko Euskalerriari pilotalekuan, goizeko 10:00etatik aurrera

### Nafarroako Emakume Master Cup Paleta Goma Txapelketa. Finalerdiak

#### • Gazteak

- Aurize Beltza- Maialen Larraza / Elaia Zabalza-Mikaela Mendiola
- Irati Garziarena-Maria Eguskiza / Ane Berastegi-Iraia Amado

#### • 2. maila

- Artazkoz-Garatea / Anitua-Beitia
- Quevedo-Sarasibar / Antxo-Argain

#### • 1. maila

- Saralegi-Galarza / Errea-Murillo
- Parot-Ansotegi / Mendiñueta-Eskala

#### • Eliteak

- Uxue Murillo-Irati Igoa / Amaia Irazustabarrena-Ariane Arrieta
- Isasmendi-Ruiz de Azua / Saragueta-Ardanaz

eta ekainaren 25etik aurrera Laso Bilboko enpresan hasiko da. Bitartean afizionatuen mailan aritu da, eta jaun eta jabe izan da, Irurtzungeo Txapelketan argi eta garbi geratu zen bezala.

Irurtzungeo Txapelketan Minarekin batera aritu zen Laso, eta Antso eta Gil izan zituzten arerio, txapelketa honetan sorpresa eman duen bikotea. Laso eta Mina ziren faboritoak eta hasieratik hartu zuten aginte makila, baina txapelketan emandako maila ikusita, gehiago espero zen Antsoz eta Gilez. Nolanahi ere, Lasok eta Minak ikusgarri jokatu zuten eta 22 eta 9 irabazi zieten Enaitz Antsori eta Koldo Gili eta Irurtzun Txapelketako merezitako txapelkunak dira. Ikusgarriak izan ziren Lasoren erremateak. Afizionatuetan jokatu dituen 24 partidak irabazi ditu, 23 buruzburu, eta bat lau eta erdian.

## 1. MAILA AUTONOMIKOA

**17. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Avance Ezkabarte - Lagun Artea **2-2**

**13. JARDUNALDIA (ATZERATUA)**  
Lagun Artea - Beti Casadano **1-3**

### SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Avance Ezkabarte	42
8	Lagun Artea	14

### AZKEN JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

**17:00** Lagun Artea - Burlades (*Zelai Berri*)

### Lagun Arteak Burlades hartuko du

Asteburuan bukatuko da liga, eta Lagun Arteak etxean despidituko du denboraldia, Burladesen kontra. Igandean liderraren kontra jokatu zuten lakuntzarrek eta oso itxura ona eman zuen Lagun Arteak. Zubiriak Lagun aurreratu zuen, baina Avance 2 eta 1 jarri zen aurretik. Iokin Lobok falta zuzenaz gol ikusgarria sartuta, garaipen zaporea izan zuen binako berdinketa lortu zuten txuriek. Asteazkenean, atzeratutako partidaren, 1 eta 3 galdu zuten Beti Casadanoren kontra.

## ERREGIONALA GIZONAK

**17. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Altsasuk atseden jardunaldia zuen

### SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1	Gazte Berriak	40
4	Altsasu	24

### AZKEN JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

**18:00** Iruña B - Altsasu (*Taxoare 4*)

### Altsasuk 3. postua du jokoan

Altsasuk ez zuen liga jardunaldirik eta atzeratutako partidak jokatu zituen. Ligako azken partidaren 3. postua dute jokoan Iruñak (3.) eta Altsasuk (4.). Igandean erabakiko da, Taxoaren, nork lortuko duen podiuma.

## MENDIA Ekainaren 26tik 27ra Urbanen gaua pasatzeko gonbita

Sakanako Mankomunitateak, *Naturanitzean Gozatzen* programaren barruan ekainaren 26tik 27ra Urbanen egonaldia egiteko eskaintza egin die 16 eta 18 urte bitarteko gazteei: mendi ibilaldia, bibak bat egitea, bertan lo egitea, orientatzen ikasi, 3D mundua ezagutu... Izena ematea: 948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 25 euro.





# Sakanako merkataritza da behar duzuna!

## **SARIA:**

1000 € Sakanako BERRIAlagun komertzio eta tabernetan gastatzeko

EPEA: **ekainaren 15etik 24ra**



## **Nola parte hartu?**

BERRIAlagun diren komertzio eta tabernetan gastua egin eta datuak bete



**Zozketa eguna: ekainak 30**

Antolatzailea:

**berria**

Laguntzaileak:

**Mank**  
s a k a n a  
Sakanako Mankomunitatea



Babeslea:



**Maidar Betelu Ganboa** OLAZTI

Iban Lopez de Goikoetxea Galan pilotuak aspaldiko partez bere gidari senari jarraitu dio. Renault 5 GT Turboa prestatu, eta asteburuan Kantabriar jokatu zen Solo Renault Turbo lasterketan aritu da Eneriz Besga kopilotu zuela. "Oso gustura" egon zirela aitortu du.

**Geldialdi luzearen ondoren, atzera ere errepideetan bueltan zaude. Haitzean jaioak haitzera nahi...**

Denboraldi luzea neraman rallyetan edo igoeretan parte hartu gabe. Parte hartu nuen azkeneko lasterketa 2019ko Urbasako Igoera izan zen, etxeko lasterketa zelako. 2019an soilik lasterketa horretan aritu nintzen; aurreko urtean, 2018an, soilik hiru lasterketa egin nituen, eta ia, 2020an, ez nuen lasterketa bakar batean ere parte hartu. Baina aurten animatu naiz. Berriz ere hemen gaude, zarata ateratzen. **Zure Renault 5 (R5) GT Turboarekin, jakina.**

Bai, inolako zalantzarik gabe.

**Autozale amorratua zara. Odolean daramazu.**

Zer esango dizut? Autoa saltzekotan egon nintzen, baina azkenean ez nuen saldu, eta konfinamendua beste auto bat muntatzen hasteko aprobetxatu nuen. Ez naiz geldirik egotekoa; nire eskua beltz daude beti (kar, kar...). **Azken hilabete eta erdian ordu pila bat sartu omen dituzu R5 GT Turboa prestatzen.**

Jakin nuenean Kantabriako Samanon ekainaren 5ean III. Solo Renault Turbo lasterketa antolatu behar zutela, nire autoa prestatzea erabaki nuen. Izan ere, lasterketa horretan aritzeak ilusio berezia piztu zidan, proban soilik Renault Turboek parte hartu ahal zutelako, hau da, R11 Turboek, R5 GT Turboek, R5 Turboek, R5 Maxi Turboek eta R5 Turbo 2 edo *culo gordo* ezinez ezagutzen direnak. Proba oso berezia zen, eta autoa prestatzea erabaki nuen. Eta hor ibili naiz, azken hilabete pasa bajeratik atera gabe.

**R5 Turboen zale amorratua zara.**

**Auto hauek oraindik mitikoak dira.** Mitikoak dira, baina agian Peugeot 205, Citroën Saxo edo BMW M3 auto bat duenak bere autoarekiko zaletasun bera izan dezake. Gu auto lasterketetan 2001ean hasi ginen, aurten 20 urte egingo ditugu, eta gehienak R5 eta halako autoekin hasi ginen. Garai haietan R5 hauek oso merkeak

# "Bizi guztia R5 GT Turboarekin; harrapatzen zaitu, guztiz"

**IBAN LOPEZ DE GOIKOETXEA GALAN PILOTUA**

la bi urte geldirik egon eta gero, asteburuan errepidera itzuli zen pilotu olaztiarra. Samanoko Solo Renault Turbon lehiatu zen, R5 GT Turboarekin, "oso gustura"



Iban eta Eneriz, Samanoko lasterketa hasteko prest. UTZITAKOIA

ziren, baina arazoak ematen zizuten eta jendeak ez zituen nahi, nolabait esateagatik. R5a gerra asko ematen duen auto bat da, baina guztiz harrapatzen zaituena. R5 bat daukanak edo izan duenak beti bat baino gehiago izan ditu. Bizi guztia daramagu auto honekin eta errazago egiten zait R5 bat prestatzea beste edozein, esaterako Saxo bat edo Clio bat prestatzea baino. Eta ondo jarria eta prestatuta badago, lehiakorra izaten jarraitzen du eta diru gehiago balio duten auto horien aurrean sartzeko eta sailkatzeko aukera ematen dizu. Ni oso gustura nago.

**Gogoan dut R5 Copa Turboa atera zutenekoa. Zer du R5 Turboak?**

Garai haietan turboa ez zen ohikoa. Auto hau *turn turbo aulkia* izenekoa izan zuen lehenetarikoa izan zen. Auto txikia da, pisu gutxikoa, eta horri turboa gehituta, ba auto azkarrak ziren, biziak. Hori bai, gidatzeko orduan kontu pixka batekin ibili behar da, izan ere auto oso urduria da, pisu gutxikoa eta *par motor* deritzon potentzia du. Horregatik oso bat-batekoa da. Azkar hartu zuen izena eta fama.

**"AUTO PROBETAN 2001EAN HASI GINEN; DUELA 20 URTE, ETA GEHIENAK R5AREKIN HASI GINEN"**

**Zer moduz asteburuan Samanoko Solo Renault Turbo lasterketan?**

Ostiralean joan ginen autoaren egiaztapenak egitera, lasterketa larunbatean izan zelako. Rallysprint formatuan jokatu zen. Onton eta Otañes artean 5 km inguruko eremu bat prestatu zuten, eta norabide batean hiru pasa eta kontrakoan beste hiru pasa egin behar genizkion. Beraz, guztira 6 eremu ziren. 30 taldek hartu genuen parte, Estatuko txoko guztietatik etorritakoak: Almeria, Murtzia, Katalunia, Andorra, Kantabria, Asturias, Castellon, Valentzia, Euskal Herria... Oso giro polita egon zen. Auto guztiak etxe berekoak ziren, itxuraz antzekoak, baina autoen prestatetan zegoen ezberdintasuna. Prestaketa ikusgarriak zeuden, oso ondo eginak. Pilotu onak, ongi prestatutako autoak eta ikusteko proba oso polita.

**Nor izan zen zure kopilotua?**

Javi Goikoetxea zen etortzekoa. Javirekin joatea gozamen da, ia profesionala balitz bezala egiten baitu lana. Ikusgarria da. Baina azken orduko arazo batenagatik ezin izan zen etorri, eta Eneriz Vesgari proposatu nion. Berehalakoan baietz esan zidan. Izpegiko Igoeran aritzeko asmoa nuen, autoa probatzeko, rally batean aritu gabe 3 urte bainengo, nahiko berde, baina abiadura kaxa hautsi nuen eta ezin izan nintzen atera. Kantabriara autoa probatu gabe joan behar izan nuen, guztia txintxilik eta nahiko urduri.

**Eta zer moduz joan zen lasterketa?**

Aritu ginen gutxia ongi atera zen. Izan ere, bigarren pasadan motorra hautsi zitzaigun; eremu erdia motorra hautsita egin genuen. Eta hala ere denbora oso onak egin genituen. Lehendabiziko eremuan 4. sailkatu ginen, 3. sailkatu zenetik segundo batera. Eta bigarren eremuan, justu motorra hautsi zitzaigun, 4. sailkatu ginen, 3. postutik segundo erdira. Horrela jarraituz gero, eta erritmo pixkat hartuko bagenu, aurreko hiruren artean sailkatzeko aukera izango genuke. Beraz, alde horretatik poza, aurreikusitakoa baino askoz hobeki aritu ginelako, baina erretiratu behar izanagatik pena. Sikiera motorra azken eremuan apurtuko balitz... Horrek ematen digu amorrutik handiena, baina hau da dagoena. Onenen artean ibiliko ginenik ez zuten askok espero, guk ere ez. Beraz, pozik.



Lasterketa utzi behar izan zuten, baina sentsazio oso onekin. UTZITAKOA

### Atzematen zaizu oso gustura egon zaretela.

Bai. Kuadrillako batzuk etorri ziren, eta lagunartean egon ginen asteburuan. Ongi pasatu genuen eta emaitza, egia esan, bigarren mailako kontua zen. Baina aurrean egon ginela ikusita...

### 2022erako R5 modelo berriren bat aterako omen dutela entzuten da, baina, egun, R5ak ez dira egiten. Piezak lortzea zaila da?

Pieza berriak badaude baina oso garestiak dira eta gutxi daude. Zailak dira lortzen, eta ezin denean ahal dugun moduan ibiltzen gara, lagunekin konpontzen eta beste. Bestalde, auto hauek mantentzea behar dute, eta nik 2019ko Urbasako igoseratik ez diot kasurik egin. Lanean ibili naiz, beste gauzetan, eta ez dut denbora asko hartu autoa ondo prestatzeko.

### Ikusita ia entrenatu gabe halako denborak egin dituzula, jarraitzeko asmoa al duzu?

Autoa etxean izanda... Gainera, babesle batzuekin hitz egin dut eta laguntza eman didate, eta gastua ere egin dago: aurtengo lizentzia atera dut eta gurpilar erosi ditut. Kantabriakoa eta gero gogoz geratu naiz, eta uste dut besteren batean ariko naizela, baina helburu jakinik jarri gabe. Dagoeneko Nafarroako Mendi Igoera eta Rally Txapelketak hasiak daude eta ezin dut txapelketetan pentsatu. Aurki Fiteroko Rallya jokatu da baina ziurrenik ez dugu motorra konpontzeko denborarik izango. Zenbat denbora kostatuko litzazueke autoa prest jartzea?

Matxura zein izan den ongi begiratu behar dugu, ea merkea eta konpontzeko erraza den, edo motor guztia egin behar den.

Espero dezagun txikia izatea eta aurki berriz kaskoa jantzi eta karreraren batera itzultzea. Baina datarik jarri gabe. Kantabriakoa ikusita, agian kanpora ateratzea polita litzateke, asteburu pasa egiteko planteamenduarekin. **Kantabriako egonaldia R5en piezen inguruko kontaktuak egiteko aprobetxatu duzue?**

Gainontzeko kiroletan bezala, batzuk dena kontaktzen dute eta beste batzuk guztia baina aldrebes. Motor on bat egin eta lortu arte, agian dozena erdi motor hausten dituzu probak egiten. Motor on bat eta mekanika on bat lortzen duzunean, eroso zaudenean eta fidagarritasuna lortu duzunean, atzean lan ordu eta diru asko daude. Hortaz, normala da pilotu bakoitzak bere sekretuak izatea.

### Sakana Motorsportek antolatzen du Urbasako Igoera. Aurten antolatuko duzuen erabaki duzue?

Esango nuke eskuderiako kideen nahia lasterketa egitea dela, baina oraindik ez da erabakia hartu, gauza asko aztertu behar direlako. Aurten lasterketa guk antolatzen dugula 10. urtemuga litzateke, 2011n hasi baikin. Nahiko genuke, baina ikusiko da.

### Ea azkar bueltan zaren.

Ea hala den! Gure kirolak ikusgarritasuna izatea garrantzitsua da guretzat, eta gure historiak kontatzeko GUAIXEN tarte bat hartzea eskertzen dizuegu.

## "R5A AUTO OSO URDURIA DA, PISU GUTXIKOA ETA OSO BAT-BATEKOA. AZKAR HARTU ZUEN FAMA"

## Imanol Arregi beste bi urte Xotaren ontzia gidatzen

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xota datorren denboraldia prestatzeko fitxak mugitzen hasi da

Osasuna Magna Xotak aurtengo helburua lortu du, 1. Mailari eustea, baina ederki sufritu behar izan du talde irurtzundarrak. Tatonok Arregi presidentek aitortu duenez, urte latza izan da. "Kalbarioa izan da. Kontziente ginen talde oso gaztea genuela, zazpi hasiberri tartean, apustu oso arriskutsua, eta lesioekin ere ez dugu zorterik izan. Beraz, 1. mailari eustea lorpen handia da, orain arte klub gisa ez dugu horren gaizki pasa" nabarmendu du Tatonok. Orain, datorren denboraldian jarri da taldea.



Imanol, salbazioa ospatzen. XOTA

Lehen pausoa talde tekniko guztiari kontratua berritzea izan da. Imanol Arregik bi urterako berritu du, izan dituen gainontzeko eskaintzei muzin eginez. Beti herriko taldearen alde. "Badakigu 1. mailako talde tekniko onena dugula, ez dugu errekonozimendurik behar. Baliabide ekonomiko onenak lortzeko borrokatzea, hori da egin behar duguna" azaldu du Tatonok.

Jokalariei dagokienez, bik ez dute jarraituko talde berdean: Mancuso eta Jesus. Gainontzekoek taldean jarraituko dute. Esaterako, Dani Zurdori hiru urterako berritu diote kontratua. Eta Mancusoren baja ordezkatzeko lehen fitxaketa egin du Osasuna Magnak: 25 urte dituen eta Italiako Ligatik datorren Raul Rocha brasildarra. "Oso lehiakorra dela eta gola ekarriko duela" uste du Imanolek.



SAKANA IGERIKETA TALDEA

## 130 igerilari Zelandin

**IGERIKETA** Nafarroako Kirol Jokoen Kimuen Mailako 4. jardunaldia jokatu zen larunbat arratsaldean Zelandin. Nafarroako 14 igeriketa klubetako 130 igerilari hartu zuten parte, tartean Sakana Igeriketa Taldeko ordezkariak, Asier Fernandez Huarte eta Mikel

Arrizabalaga Garziandia. Asier 400 m libreetan aritu zen, eta Mikel 100 m bularretan, eta lan txukuna egin zuten. Sakana Igeriketa Taldeak gogotik egin behar izan zuen lan guztia behar bezala antolatzeko, eta aipatu dutenez, "giro bikaina" izan zen.

## Etxarriarrak Irati Trailean

**MENDI LASTERKETAK** Mendi korrikalariek gogotsu hartu zuten igandean jokatuako Irati Trail zoragarri bezain gogorra: 30 km, 2.100 m desnibel + eta Orhi gaina (2.017 m). 213 korrikalariren artean Ander Iñarra gailendu zen (2:55:14). Aritz Munarriz 20. sailkatu zen (3:29:59), Arkaitz Munarriz 44. (4:01:07) eta Igor Artieda beteranoetan 6. (4:08:40).



UTZITAKOA



Altsasuko CBASK Jatorman taldea, Lauko Finaleko txapeldunordearen saria jasotzen.

# CBASK Jatormanen denboraldi ikaragarria

**SASKIBALOIA** Talde altsasuarra Autonomien Arteko 2. Mailako txapeldunordea izan da, Zelandin jokatuako Lauko Final zirrargarrian San Cerninen kontra 7 tantorengatik galdu eta gero. "Oso pozik eta datorren denboraldian jarraitzeko gogoz" dago taldea

## Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Asteburuan saskibaloia festa bilakatu zen Zelandi. Altsasuko CBASK Saskibaloia Taldeak gogotik egin zuen lan bertan jokatuako Autonomien Arteko 2. mailako Lauko Finala behar bezala ateratzeko. Giro bikaina izan zen, igandeko final handian bereziki. CBASK Jatormanek 7 puntuko alde eskasarengatik galdu zuen final handia, baina horrek ez du taldeak egindako denboraldia itzali.

Larunbatean jokatuako finalerdian CBASK Jatormanek 70 eta 81 hartu zuen mendean Berriozarko Humiclima. "Ondo hasi ginen, baina beraiek esperientzia handia dute eta 3 puntu jarri ziren aurretik. 2. zatian beraiek baino hobeki jokatu genuen eta finalerdian gailendu ginen" azaldu du Iosu Mendiola Maraño entrenatzaileak. Txapelketa polita izan da. "Bikain joan da Lauko Finala. Partida guztiak berdinduak izan dira eta hori ona da taldeendako. Gutxi

gehiago eska daiteke. Txapelketa bukaerara arte emozioa izan zuen" gaineratu du Mendiola.

## Zelandi txiki

Igandean txiki geratu zen Zelandi CBASK Jatormanen eta San Cerninen finala ikusteko. 200 ikuslerendako aforoa zegoen, eta jendea kanpoan geratu zuen, ezin sartu. Final polita eta estua izan zen, eta sekulako giroa zegoen. Atsedean tarteetan dantza ikuskizunak, musika, zozketa eta beste izan ziren.

"Emozio handiko finala izan zen, lehiatua eta ikusteko polita. Gure jokalariek batekin hausturaren batekin jokatu zuen, eta hor ibili ginen, guztia ematen. Azkenean, dugun nortasuna atera genuen, eta jendearen laguntzaz indarrak atera eta markagailuan aurrean jartzea lortu genuen. Bi xehetasun txikirengatik galdu genuen. Bi saskiratze alde batera erori ziren, eta bestera ez. Hor joan zitzaigun partida" aipatu du Iosuk, ahotsa urratua duela.

Finala galdu izanaren penak ordu erdi iraun zela dio entrenatzaileak. Izan ere, txapeldunordeak dira. Azkar esaten da hori. "Nork esan behar zigun hori duela 3 urte mailaz igo ginen? Edo aurreko urtean, ia talderik ez genuenean? Pozik gaude, eta jende guztia gu zoriontzen ari da. Egia esan, zoriontzekoa da. Lauko Final handia galdu dugu, baina denboraldi oso ona egin dugu" aitortu du.

Autonomien Arteko 2. Mailan jarraituko luke CBASK-ek, baina guztia airean dago, San Cerninek ez baitu 1. mailara igotzeko intentzio gehiegirik eta horrek guztia aldatuko lukeelako. "Momentuz atsedean hartu, eta gero gerokoak" dio Mendiola.

**"GU ANIMATZERA HORRENBESTE JENDE GERTURATU ZEN... OSO ESKERTUTA GAUDE" IOSU MENDIOLA**

## Lauko Final handiak utzi zuena



Zaleek izugarri disfrutatu zuten finalean.

**Afaltzera.** Finala galdu eta elkarrekin afaltzera joan ziren CBASK Jatormanekoak. "Hurrengo egunean lanera joan behar ginen, baina 12:30ak arte egon ginen, gustura. Hor ikusten da partidaren emaitza, azkenean, guretako gutxienekoa zela" dio Mendiola.



Iosu Mendiola jokalariei azalpenak ematen.

**Giro oso ona.** CBASK Jatorman taldean giroa oso ona da. "Beti izan dugu giro ona, urtero pixka bat hobea, eta aurtengoa jada ikaragarri polita da. Datorren denboraldian jarraitzeko gogotsu daude jokalariek" azaldu du entrenatzaileak.



Partida ona jokatu zuten San Cerninek eta CBASK Jatormanek.

**Oso eskertuta.** Eurak animatzera gerturatu zirenekin oso eskertuta dago taldea. "Jende asko geratu zen sartu ezinik, eta eskerrak ematea, ez dugu besterik. Baita CBASKeko boluntarioei ere, Final Laukoa bikain antolatzeagatik. Guztia ongi atera da" dio Mendiola.



Nafarroako Eskolarteko Txapelketan parte hartu zuten gazteak, tartean sakandarrak. NAFARROAKO BERTSOZALE ELAKRTEA

# Lehenengo aldiz oholtzan

Iraia Agirre Azkarate, Larraitz Goikoetxea Zuriarrain eta Olatz Bados Ganuza altsasuarrek, Harriet Artieda Diez etxarriarrak eta Oinatz Zelaia Gorrotxategi bakaikuarrak Nafarroako Eskolarteko Txapelketan parte hartu zuten

## Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Duela bost urte inguru haien herrietako bertso eskolan hasi ziren. Aurretik ikastolan bertso-larritza saioak ematen zituzten, bertso irakasle bat ikastolara joaten zelako. Gustatu zitzaizen, eta jarraitzea erabaki zuten. Orain arte. Aurten lehenengo aldiz Lesakan jokatu zen Nafarroako Eskolarteko Txapelketan parte hartu zuten Altsasuko Iraia Agirre Azkaratek, Larraitz Goikoetxea Zuriarrainek, Etxarri Aranzko Harriet Artieda Diezek eta Bakaikuko Oinatz Zelaia Gorrotxategik. Olatz Bados Ganuza altsasuarren bigarren aldian zuten lehiaketan. Artiedak eta Agirrek aurreko edizioan parte hartu behar zuten, baina konfinamenduaren ondoren izan zen "eta ez nengoen prest. Aurreragorako uztea erabaki nuen", Agirrek azaldu duenez. Artieda:

"Justu COVID-a iritsi zen eta prestatu gabe nengoen. Azkenean, ez nintzen aurkeztu. Honetara aurkezteko aukera ateratu zen, eta aurkeztu ginen".

Txapelketa Lesakan izan zen, maiatzaren 29an, Nafarroako Bertso Eskolen Egunaren baitan. 14 eta 18 bitarteko hamaika bertso-larrik parte hartu zuten. Sakandarrekin batera, Ainhoa Arrizabalaga Sanchez iruindarra, Amañur Goñi Elortza beratarra, Beñat Astiz Isasi barañaindarra, Bittori Elizalde Soto iruindarra, Eki Mateorena Zozaia leizarra eta Etxahun Azkarraga Fernan-

**IKASTOLAN HASI ZIREN BERTSOTAN, ETA BERTSO ESKOLAN JARRAITZEA ERABAKI ZUTEN**

dez etxalartarra aritu ziren. Ainhoa Larretxeak aurkeztu zuen saioa eta Aimar Sagastibeltza, Nerea Bruño eta Saioa Mitxelena aritu ziren epaile lanetan. Bigarren fasean ez zen sakandarririk egon: Beñat Astiz, Bittori Elizalde, Eki Mateorena eta Etxahun Azkarraga sailkatu ziren, eta Beñat Astiz barañaindarrak irabazi zuen txapelketa.

## Bertsotan

"Irakasleak animatuta parte hartu nuen. Nahiko lotsatia naiz, eta irakasleak askotan esan zidan. Gainera, besteak animatzen zirela ikusita... laguntzen du", azaldu du Goikoetxeak. Bost bertsolari gazteak txapelketaren aurretik urduri zeudela esan dute. Hala ere, "uste nuen okerragoa izango zela oso urduri jartzen naizelako. Baina gustura egon nintzen", esan du Agirrek.

Artiedak, bestetik, zenbat jende egongo zela ez zekitelako eta bakarrik kantatzean "presio gehiago" sentitu zuela aitortu du. "Berdin; lehenengo aldian zenez urduri nengoen, baina gero normal aritu nintzen", esan du Zelaia. Badosen bigarren aldian zen, eta "oso gustura" egon zen. "Uste nuen okerragoa izango zela lehenengo aldian okerrago pasatu nuelako. Oholtzara igo nintzenez urduritasuna ahaztu nuen, eta bakarrik disfrutatu nuen".

Ikastolan egiten zituzten bertso eskolatan sartu zitzaizen zaletasuna. Aurretik ez zuten bertsoaren munduarekiko harreman handia. Goikoetxearen eta Zelaia-aren kasuan familian badituzte bertso zaletuak, baita Artiedaren anaia bertso-larritzan ibilitakoa da, baina haiek ez zuten zaletasun bezala. Badosen azaldu duen moduan, gustura aritzen ziren, eta horregatik bertso eskolan jarraitzea erabaki zuten. "Inprobisazioa da gehien bat gustatzen zaidana", esan du Artiedak. Esperientzia berri bat eta gauzak "adierazteko beste modu bat" eskaintzen diola aitortu du Agirrek.

Bertso eskolan astean ordubete bertsoan aritzen dira. Inprobisazioa lantzen dute, gehien bat. "Lau oinak edo gaia emanda inprobisatu behar dugu, edo ofiziokoa aritu...", azaldu du Badosen. Goikoetxea: "Azkenaldian gehiago inprobisatu dugu Eskolartekora joan behar ginelako, eta ariketa horiek lantzeko". Lagunarteko bat dela esan du Agirrek, "ez da klasean bezala teoria sartzen dela". Azken aldian ere doinuak landu dituzte, lehiaketan doinu gehiago jakiteko. Lesakako oholtzara igo aurretik "bakarrik gure artean abesten genuen", azaldu du Badosen. Baina lagunekin joateak laguntzen duela aitortu du Goikoetxeak. Artiedak kontatu duenez, bertso eskolan mikrofonoaren plantak egiten dituen aulki bat jartzen dute, oholtzarendako entseatzeko bezala.

## Bertsolaritza

Bertsotan hasi direnean hasi dira ere bertsoaren munduarekin harremana izaten. Bados: "Nik badut lagun bat bertsoan aritzen dena eta bere esperientzia kontatzen zidan. Hortik aurrera hasi nintzen begiratzen eta ezagutzen". Goikoetxearen kasuan orain hasi da bertsolariak ezagutzen, "bertsoan nabilelako". Artiedak ere "orain dela gutxira arte" ez zuten ezagutzen

bertsolarietatik "gauza handirik. Orain hasi naiz bertsolariak ezagutzen, doinuak eta abar".

Sasoi onean ikusten dute gazteek bertso-larritza, behintzat, pentsatutako baino hobea. "Gazte asko dago orain. Eskolartekoan esan zuten uste zutela beherakada egon behar zela, baina guztiz kontrako gertatzen ari dela", azaldu du Goikoetxeak. "Orain Altsasun bertso eskolan jende pila bat dago. Guk hasi genuen bertso eskola, nolabait esateko. Hamar hasi ginen eta hiruk bukatu dugu. Baina bertso eskola gehiago sortu dira". Zerbait mugitzen ari dela esan du Badosen. Garai berrietara egokitzen ari dira. Artieda: "Gaiak jartzen dituztenean nabaritzen da ari direla". Esteraiko, Eskolartekoan ikastolan asko "zentratu" ziren, baita mugikorren gaia landu behar izan zuten ere.

Errimak egiten eta inprobisatzen ez ezik, bertso eskolak zertxobait gehiago irakasten die ere. Badosen esan duenez, "ni hasi naiz bertsoan nire bizitza kontatzen eta barrenak husten". Zelaia bertso-larritzan ematen den errespetuaz hitz egin du, baita jendearekin sortzen den harreman polita aipatu du Goikoetxeak ere.

Momentuz bertso-larritza zaletasun bat bezala ikusten dute bost sakandar gazteek. Bertso eskolan jarraituko dute, eta aukera sortzen bada, lehiaketetara aurkeztuko dira.

## Txapelketa martxan

Hamabi bertsolari dira dagoeneko udazkenean jokatu den Nafarroako Bertsolari Txapelketarako sailkatuak daudenak, eta ekainaren 18an, 19an eta 20an 2021eko jokatu diren aurrekanporaketatik hamabik lortuko dute sailkapen txartela.

Hemezortzi bertsolariak parte hartu dute Igantzin, Garesen eta Iruritan aurrekanporaketa saioetan. Tartean Idoia Granizo Uribarrena altsasuarra (ekainak 18, Igantzi), Ekain Alegre Gil altsasuarra eta Oier Lakuntza Irigoien urdiaindarra (ekainak 20, Irurita) ariko dira aurrekanporaketetan.



Anitzartean zerbitzuak antolatu du ipuin laburren lehiaketa. ARTXIBOA

## Zurrumurruen kontra, literatura

Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak Zurrumurruen Kontrako Ipuin Laburren II. Lehiaketa antolatu du

SAKANA

Kontrastatu gabeko informazio edo ideia bat da zurrumurrua. Gehienetan ez da egia, eta oso modu errazean zabaltzen da, ahoz, idatziz edota sare sozialen bidez. Zurrumurruen atzean aurreiritziak, estereotipoak edo ideiak daude, eta elkarbizitzan oso gaizki eragiten dute beste pertsonetik beldurra eta mesfidantza sortzen dutelako.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun zerbitzuak urteak daramatza zurrumurruen desaktibazioan lan sakona egiten. Lan horren barruan hainbat ekimen sustatu ditu, azkenetarikoa Zurrumurruen Kontrako Ipuin Laburren Lehiaketa izan da. Aurreko urtean lehenengo edizioa antolatu zuen, eta arrakasta ikusita, aurreko bigarren edizioa martxan jartzea erabaki zuten. "Oso emaitza onak izan zituen bai parte hartzaile aldetik bai edukien aldetik", esan du Bego Zestau Anitzartean zerbitzuko teknikariak. Lehenengo edizioan 23 lan aurkeztu ziren eta epaimahaia "onerako harrituta" zegoela aipatu du Zestauk; "gehien bat adin txikien mailan".

Zurrumurruen Kontrako Ipuin Laburren II. Lehiaketan bi kategoriatan daude, 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Kategoriatan bakoitzean bi modalitate daude: euskarazkoak eta gaztelaniazkoak. Gaia Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzutik sustatzen diren aniztasuna, berdintasuna, diskriminazioa eta aberreko baloreak

adieraztea da; zurrumurrurik gabeko Sakanako bat imajinatzea. "Hortik joan diren ipuinak". Hori baita lehiaketaren helburua.

Guztira hamabi sari banatuko dira: sei 16 urtetik beherakoentzako eta beste sei 16 urtetik gorakoentzako, eta, horren barruan, euskarazko hiru sari banatuko dira eta gaztelaniazko beste hiru. 16 urtetik beherakoentzako Sakanako Dendarien Elkarteko dendaren batean eskola materialagatik aldatzeko 100, 75 eta 50 euro izanen dira sariak, eta helduentzako kategorian elkarteko dendetan erabiltzeko 200, 150 eta 100 euroko bonoak izanen dira. Epaimahaia Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak, Bitartekari linguistikoak eta kulturartekoak eta ZASKAko kide batek osatuko dute.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean, barne, amaitzen da. Ipuinak modu elektronikoa aurkeztu behar dira, eta bi dokumentu pdf formatuan bidali behar dira: alde batetik, izen abizenak, herria, adina eta kontaktatzeko helbide elektronikoa eta telefono bat aipatzen diren dokumentu bat, eta, bestetik, ipuina. Bi pdf-ak goituzen bat izanen dute eta horrela deituko dira. Modu honetan, lanen anonimotasuna mantentzen da. Lanak [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus) helbidera bidali behar dira.

Epaimahaia uztailen zehar baloratuko dituzte lanak eta ikasturtea hasi baino lehen sari banaketa emanaldia antolatzea aurreikusten du Zestauk.

# "Lehenengo publikazioa komikia izango zela uste nuen"

MIKEL MAIZA RAZKIN MARRAZKILARIA

Artista etxarriarrak 'Ilezuri' album ilustratua aurkeztu du Kristina Etxabe idazlearekin eta Maite Marquez ilustratzailearekin batera. Animazioa ikasten ari da Bartzelonan

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRIA.

Etxarri Aranazko liburutegian komiki bilduma handia dagoela esan du Mikel Maiza Razkinek. Ongi ezagutzen du, txikitatik komiki zaletasuna handia duela. Zalea eta egilea da etxarriarra, komikiak egitea gustatzen baitzaio. Bartzelonan animazioa ikasten ari da, "marrazki bizi-dunak egiteko". 2Dan hasi zen eta orain 3Darekin hasi da. Bartzelonako estudio batean praktikak egiten ari da, baina oraindik ezin du horri buruz asko esan. Aurreko ostiralean, Donostian, *Ilezuria* bere lehenengo publikazioa aurkeztu zuen.

**Komikizalea eta komikigilea zara, ezta?**

Hori da. Maria Markotegi pare bat aldiz irabazi nituen. Bartzelonara joan nintzen bertan ikasketekin jarraitzeko aukera gehiago zegoela ikusten nuelako. Iruñean Batxilergo artistikoa egin nuen, eta gero ez nekien zer egin. Arte Ederrak izan zitekeen, baina ez ninduen guztiz konbentzitzen. Ez zen niretzat. Hemendik gertu ez zegoen komikigintza ikasteko zentrorik edo akademiarik eta pentsatu nuen animazioan sartzea eta lehenengo urteetan asteburuetan Escola Joso komikigintza eskola ospetsu batean komikigintza ikasten egon nintzen. Horrela bi urte egin nituen. Hurrengo urtean Erasmusera joan nintzen eta komikigintza pixka bat alde batera

utzi nuen, eta hortik aurrera afizio bezala jarraitu dut komikiak egiten. Noizbehinka lehiaketaren batera aurkeztu naiz, baina momentuz arrakasta gutxiarekin.

**Eta orain album ilustratu bat publikatu duzu. Nola sortu zitzaizun aukera?**

Goi mailako zikloa bukatu nuen eta argi neukan animazioa oso gustuko nuela, baina ez zen nahikoa. Ez nengoen prest industriari sartzeko, edo uste nuen inork ez ninduela kontratatuko. Orduan, komikigintzan berriz sartzea pentsatu nuen. Garai horretan sortu zen Biko-Tekan deitzen den ikastaroan parte hartzeko aukera. Galtzagorri elkarteak antolatzen du, eta bertan lagun bat neukan eta izena ematera animatu ninduen. Bertan, aste batean idazle bat eta ilustratzaile bat elkartzen zituzten eta album ilustratuak egin behar genituen. Bilboko idazle batekin jarri ninduten: Kristina Etxabe. Ikastaro horretan album bat egin genuen eta lehiaketetara aurkeztu genuen. Kristinak beste ipuin labur bat zuen, eta pentsatu zuen albuma

**"NIRE ESTILOA OSO KARIKATURESKOA DA; KOMIKITIK NATOR ETA NABARITZEN DA"**

izan zitekeela ere. Duela hiru urte izan zen.

**Distantzian egin duzue?**

Bai. Nahiko konplikatu izan zen. Baina atera genuen, eta pozik gelditu ginen. Lehiaketetara bidali genuen, baina zorte handirik gabe berriz ere. Baina Kristina ezin da geldirik egon, oso tematia da, eta ipuina mugitu behar zuela esan zuen. Beste proiektu bat zeukan esku artean ere. Kristinak Maite Marquez ilustratzaileari esan zion, eta nik egindakoa bermatatu zuen. Nire marrazki ereduarekin ilustrazioak bere estiloan jarri zituen. Lan handia egin du. *Gouache* teknika menderatzen du.

**Zein da zure estiloa?**

Oso karikatureskoa. Komikitik dator eta nabaritzen da. *Gouache* estiloa ez nekien oso ongi nola sartu, eta berak daukan esperientzia askoz handiagoa denez, asko hobetu du lana. Hurrengo maila batera eramane du. Gauza bereziak gehitu zizkioten liburuari. Maite ere Bilboko denez, lana egiteko gelditzen ziren. Ni maketatzailer bezala jarri nintzen. **Aurreko ostiralean aurkeztu zenuen. Zer sentitzen duzu?**

Pixka bat arraroa, egia esan. Nire lehenengo publikazioa komiki bat izango zela pentsatu izan dut beti. Eta orain album ilustratu bat publikatu dut. Oso pozik nago Kristinak eta Maitek konfiantza handia izan dutelako,

eta nire marrazkiak errespeta-tu zituzten. Urduri nongoen, baina pozik. Aurkezpena oso ongi joan zen.

#### Zer kontatzen du albumak?

Ilezuri deitzen da, *El oso canoso* gaztelaniaz. Ipar poloan bizi den hartz bat da, baina pixkanaka bere etxea urtzen ari da eta konturatzen da ez duela horrenbeste hotzik egiten. Orduan, bidaiatzen hasten da bere lagunei galdetzeko ea ez ote duten pentsatzen bero gehiegi egiten duela. Bukaeran elezahar bat du. Klima aldaketaren gaia hurrei gerturatzeko ipuin bat da. Kristinak oso argi zeukan oso ideia ona zela, hasieratik bagenekien zerbait atera zitekeela.

#### Zein desberdintasun daude albumaren eta komikiaren artean?

Pentsatzen nituenak baino gutxiago. Album ilustratua testu gutxi eta marrazki handiak dituen liburu bat da, eta, normalean, askotan, haurrendako literatura da. Komiki bat berdina izan daiteke. Komiki batean biñetan daude, baina egin daiteke biñetak handi bat testu gutxiarekin. Gehien bat estiloa da aldatzen dena. Komikiak ezaugarri grafiko jakin batzuk ditu, baita lengoia propio bat ere. Album ilustratuak beste bat du.


#### KOMIKIAK

##### Zein da zure estilo gogokoena?

Denetarik irakurtzen dut. Txikitik *Mortadelo eta Filemon* tebeo klasikoak jarraitzaile nintzen. Aitak komiki pila bat zituen, eta hemen liburutegi publikoan ere pila bat dituzte. Orduan, denetarik. Heldutzen joan nintzen heinean *Dragoi Bola*, *Naruto* eta horrelako mangel fan-a egin nintzen. Azken aldi honetan superheroiak eta komiki frantsesak irakurtzen ditut. Finagoa naiz, edo. Egileetan erreparatzen dut. Autore bat gustatzen bazait, horren lan gehiago bilatzen ditut.

##### Mundu zabal eta handia da.

Oso handia da, eta industria ere geroz eta handiagoa egiten ari da. Adibide nabarmena superheroiaren industriak eman duen igoera da. Ez bakarrik filmetan, komikietan ere. Filmei esker jendeak irakurtzeari beldurra kendu dio. Urtez urte geroz eta ospetsuagoak dira. Lehen adibidez batzuk ezagutzen ziren: Superman, Batman, Spiderman eta horrelako mainstream esaten ditugunak. Baina, gaur egun, mila superheroi



Mikel Maiza Razkin marrazkilaria 'Ilezuria' album ilustratuaren aurkezpenean.

**"ORAIN ALBUM ILUSTRATU BAT PUBLIKATU DUT; ARRAROA DA, BAINA OSO POZIK NAGO"**

**"ERRAZAGOA DA JAKITEA ZEIN KOMIKIZ ARI ZAREN HIZKETAN AUTOREA AIPATZEN DUZUNEAN"**

daude, eta bakoitzak bere tele-saila, pelikula eta abar ditu. Jendeak askoz gehiago ezagutzen ditu, eta ez dauka komikietan murgiltzeko beldurrik. **Eta zeintzuk dira zure egile gogokoena?**

Normalean komikietan bi figura egoten dira: marrazkilaria eta gidoilaria. Galdera hau luzatzen diozun pertsonaren arabera, gidoilaria garrantzitsuagoa dela, edo marrazkilaria inportanteagoa dela, esango dizu. Alejandro Jodorowsky asko gustatzen zait, adibidez. Denetarik egin du: antzerkia, zinema... baina komikietan oso ale bereziak egin zituen. Gidoilari oso berezia da. Jim Lee oso ospetsua da komikien munduan eta superheroiak egiten ditu. Oso ona da. Niri asko gustatzen zait. 1990ko eta 2000ko hamarkadetan lan pila bat egin zuen.

#### Komikiak ikusita, jakin daiteke zein den marrazkilaria?

Bai, guztiz. Marrazkilaritzan sartuta dagoen jendeak ikus litzake bost Batman edo bost Superman postura berdinean eta esango luke hau honena da eta bestea bestearena. Askotan gertatzen da hori. Komikien frikiak garenen artean Superman bakarrik deitu beharrean, Alan Moorek idatzi zuen Superman edo Jilm Leek marraztu zuen Superman-i buruz hitz egiten dugu. Azkenean, errazagoa da identifikatzeko zer komikiz ari zaren hizketan autore aipatzen duzunean. Duela bi urte Supermanek 80 urte bete zituen eta ordutik gelditu gabe komikiak atera dituzte. Asko daude. Hilabetero kaleratzen dituzte.

#### Eta erosten dituzu?

Gaur egun gutxiago. Bartzelonara iritsi nintzenean liburutegietara joaten hasi nintzen. Paradisua da. Badaude bi edo hiru bilduma izugarriak dituztenak. Orduan, saiatsen naiz liburutegietan hartzen eta erosi aurretik lehenengo inpresio hori izaten. Erosten baditut bildumazalatasunagatik da. Komiki bat irakurtzeko kuriositatea badut, liburutegian hartzen dut. Flipatzen dut beste komikizaleekin ez dutelako hori egiten. Ez dakit ohartzeko diren. Hemen bertan, Nafarroan, Cívicaneko liburutegian ere komiki bilduma izugarri bat dago. Liburutegiei esker milaka esti-

lotan, egileetan eta abarretan murgildu naiz.

#### Beraz, bildumazalea zara? Filmetan ikusten den horietako bat?

Esan daiteke bildumazalea naitzela, bai. Baina hainbestearinokoa ez. Pelikuletan eta serietan agertzen diren horietakoak plastikotik ere atera gabe dituztenekoak eta horrelakoak gehiegizkoak iruditzen zaizkit. Ni saiatsen naiz ahalik eta egoera hoberean mantentzen. Badut lagun bat horrelakoa dena.

#### Zein da zure komiki gogokoena?

*Sandman* deitutako bilduma bat dago, guztiz maitemindu nindue-na. Oso komiki magikoa eta berezia da. Istoriogatik, gehien bat. Gidoilaria ez da aldatzen, baina marrazkilaria bai. *Sandman* izaki mitologiko ingelesa da, eta lotan zaudenean are pixka bat jartzen dizu begietan amets goxoak izan ditzazun. Mago gaizto bat agertzen da eta, nahi gabe, eramaten du. Orduan, ametsen mundua goitik behera aldatzen du. Ametsen munduaz hitz egiten du. Oso polita da. Helduentzako, hori bai. Ez ditut haurrak traumatizatu nahi.

#### Bartzelonan Salon del Comic ospatzen da. Joan zara, ezta?

Urtero joaten naiz. Manga-kora eta Salon del Comic-era. Manga-kora pandemiaren aurretik ere ez nintzen joan. Inspirazioa da. Bartzelonan beti egoten da zerbait interesgarria egiteko: hitzaldiak daude, komikien aurkezpenak, egile ospetsuak ekartzen dituzte sinatzeko... Komiki azoka handi bat dago ere. Baina batez ere hitzaldiak gustatzen zaizkit. Hemen Iruñean azoka zati hori alde batera uzten duten, eta aurkezpenak eta hitzaldiak egitea lehenesten dute, eta niri gehiago gustatzen zait hori. Azkenean, Salon del Comic-a Manga-renaren antzekoa bihurtuko da. Hainbeste saldu nahi dutenez, manga komikiak beharrean edozer gauza aurki dezakezu. Ez zait gaizki iruditzen, ez da egokia niretzat.

#### Noizbait komiki bat aurkezten ikusten al duzu zure burua?

Oraintxe zaila iruditzen zait, baina ez dut atea ixten. Ez dut alde batera utzi nahi, are gehiago, marrazten jarraitzen dut; nire koaderno bat gainean daramat. Ez diot inoiz marrazteari utziko. Orduan, nork daki noizbait ideiare bat daukadan edo norbaitekin elkartzen naizen eta komiki bat egiten dugun. Ilusio handia egingo lidake.

# "Aiton-amonek gerratean bizitakoa jaso dugu"

Altsasu BHI Institutuan 'Sakanako Memoria Astinduz!' proiektua gauzatu dute DBH4. mailako ikasleek. Horietako bi taldek, 'Eztanda' aldizkaria eta 'Sakanako Memoria Astinduz' bideoa sortu dituzte

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

## 1 Zein irakasgaitan landu duzue 'Sakanako Memoria Astinduz!'?

Proiektua Altsasuko Institutuko DBHko 4. mailako ikasle guztiek landu dugu, Mundu Garaikidearen Historia ikasgaietan. Gerrate Zibila edo Frankismoa gaiak hartuta, testigantza bat, abesti bat, pelikula bat eta artikulatu bat landu eta aztertu behar genituen, hiruko taldeetan.

## 2 Bi talde eskatutakoaz haratago joan zarete; talde batek 'Eztanda' aldizkaria sortu du eta besteak 'Sakanako Memoria Astinduz!' bideoa.

Lana egiteko testigantzak jasotzera aitona-amonengana jotzerakoan, konturatu ginen guk ditugun askatasun eta eskubide asko duela 60 urte euren ez zituztela. Munduko edozein herritako gertakarien berri dugu, baina hemen gertatu zenaz ez dakigu. Lana egiten hasi, eta ia konturatu gabe, aldizkaria eta bideoa sortu genituen.

## 3 'Eztanda' deitzen da Garoak, Mariak eta Aitanak egin duzuen aldizkariak.

Izena esanguratsua izatea nahi genuen, eta izenarekin begi bistan ikusten da zer landuko dugun, eta hitzaren atzean dagoena gogorra dela.

## 4 Aldizkari oso polita sortu duzue. Materiala nondik lortu duzue?

Internetetik, liburutetatik, elkarriketatuen familia argazki artxibotik eta guk landutakoa. Adibidez, Bittori Leiza eta Juan Mari Nazabal gure aitona-amiñek Bartzelonara eztei bidaian joan zirenean ateratako argazki bat jarri dugu.

## 5 Gure aitona-aminei kostatzen egiten zitzaien Gerra Zibilaz hitz egitea. Zuenek nola hartu dute?



Ainhoa Vergara, Aiora Larraza, Maria Imaz, Irati Nuñez, Aitana Igoa eta Garoa Bergara.

Ongi, animatu dira. 96 urteko Domingo Mundiñano osabak orain arte inori inoiz kontaktu ez dizkion bi gertakizun aipatu zizkigun: txikia zela gerrate zibil garaian berak ikusitako bi hilketa. Juan Mari aitona bere amak kantatzen zion kanta bat aipatu zigun, eta Bittori amonak orduko bizimodua.

## 6 Aldizkaria salgai dago.

Institutuan saldu dugu, Lizarragan ere 40 ale... Norbaitek erosi nahi badu ondoko postan eska dezala: [eztandaaldizkaria@gmail.com](mailto:eztandaaldizkaria@gmail.com). Prezioa 2 eurokoa da.

## 7 "Irakurtzea aberastea da" idatzi duzue orri guztietan.

Hasteko, etxetik jada esaten digutelako irakurtzeko, asko ikasten dela. Bestetik, egunero gehiegizko informazioa jasotzen dugu; denbora asko ematen dugu ga-

## 9 Garai haiek tristeak izan ziren beraiendako?

Gehienek urte tristeak izan zirela esaten dute. Amona Catalinak 2 urte zituen eta kontatzen du hegazkinak pasatzen zirela eta zein politak ziren. Aldiz, Pedro Miguel bere anaiak 9 urte zituen eta esaten du gerra garaian dena oso tristea zela. Arrazionamendua, elikagai falta, txikitatik lan gogorra egin beharra eta beste. Gure amonak, esaterako, taloak ez ditu ikusi ere egin nahi.

## 10 Egindako bideoarekin pozik zaudete?

Bai, asko ikasi dugulako. Amonak eta osabak ere bideoa ikusi dute eta oso pozik daude. Irakasleak 10eko nota jarri digu eta agian horregatik ere izanen da (kar,

kar...). Baita liburuak ere. Osaba Domingo harro-harro dago 10eko nota jarri digutelako. Nolako poza hartu zuen! (kar, kar...).

## 11 Honekin guztiarekin zer ikasi duzue?

Ez da edozein lan izan; gure aitona-amiñei buruzko lana da. Gure nagusiek Gerrate Zibila eta Frankismoa bizi izan zuten, eta hari lotutako guztia. Egun guretzat ohikoak diren eskubideak beraien ez zituzten izan; irakurtzen eta idazten justu-justu ikasi eta behar lanean hasi behar izan zuten, eta gorriak pasa zituzten. Gu, aldiz, institutura goaz ikastera, bueltan etxean janaria dugu zain, eta ongi bizi gara. Zerbait erreala landu dugu, eta gauza errealekin gehiago ikasten da.

